# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia | Iruñean, 2001eko abenduaren 10ean | 123 ZK.


### A U R K I B I D E A

F SAILA:

**Galderak:**


—Galdera, Getze-Galarrera doan errepidearen egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).

—Galdera, Nafarroako ardoen sustapenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).

—Galdera, Vinsako plantilla berregituratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).

—Galdera, haragi-irinak errausteko Portland enpresarekin hitzarmenik ba al dagoen jakiteko. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).

—Galdera, haragi-irinak errausteko Cementos Portland enpresarekin hitzarmen bat egitearen helburuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).

—Galdera, hondakin arriskutsuak errausteko behar diren azpiegiturei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).

—Galdera, hondakin arriskutsu bereziak errausteari eta Cementos Portland enpresako errauskailua instalatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).

—Galdera, Turismo partzuergoentzako neurriak hartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).

—Galdera, hondakin arriskutsu bereziak jatorri dituzten irinak errausteak eragindako gastuen finantziazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).

—Galdera, haragi-irinak errausteko Cementos Portland enpresarekin hitzarmen bat egitearen egokitasunari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).

—Galdera, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak kontratatutako obra eta zerbitzuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).

—Galdera, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak kontratatutako obra eta zerbitzuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).

—Galdera, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuak kontratatutako obra eta zerbitzuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).

—Galdera, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak kontratatutako obra eta zerbitzuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).

—Galdera, toki azpiegiturei buruzko 2001-2003rako planean sartutako toki entitateek aurkeztu dituzten proiektuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).

—Galdera, eraikin publikoetan arkitektura trabak kentzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
—Galdera, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak kontratatutako obra eta zerbitzuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
—Galdera, espetxe berriak izanen duen kokalekuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
—Galdera, zainzurien inportazioaren kontrolei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
—Galdera, Nekazaritzako batzar sektorialean Nafarroari esleitutako kopuruei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
—Galdera, Gobernuko eta Foru Komunitateko administrazioko goi karguen interesen eta jardueren erregistroari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
—Galdera, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak kontratatutako obra eta zerbitzuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
—Galdera, Erriberrin telebista kateak ongi ikusteko arazoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (36. or.).
—Galdera, Nafarroako autobideko aparkalekuetan kamioiak aparkatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (37. or.).
—Galdera, Tuterako Irakasleentzako Laguntza Zentroan jardunaldi batzuk debekatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (38. or.).
—Galdera, Iratxe kontsumitzaileen elkarteari emaniko dirulaguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (39. or.).
—Galdera, kable bidezko telekomunikazioen zerbitzua emateko Retenak eskainitako baldintzen garapenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (40. or.).
—Galdera, tatuajeak egiten diren lekuek izaten dituzten kontrolei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (41. or.).
—Galdera, laguntza bidezko ugalketa teknikak erabiltzeko dagoen eskaera ikusita, Osasun Departamentuak eginikoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (43. or.).
—Galdera, ospitaletako unitate geriatrikoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (44. or.).

**F saila:**
**GALDERAK**

# Getze-Galarrera doan errepidearen egoerari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Félix Mª Taberna Monzón jaunak Getze-Galarrera doan errepidearen egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko maiatzaren 2ko 46. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Félix Mª Taberna Monzón jaunak galdera egin du Getze-Galarrera doan errepidearen egoerari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1. Errepide hori konpontzeko ezer egiteko asmorik al dago?

Getzerako Noaindik barnako sarbidea NA-6002 errepidea da; Espartza-Galartik joanez gero, berriz, NA-6008 errepidea erabiltzen da. Herri horretara N-121 errepidetik iristeko bidea, Segurtasun Eskolaren ingurukoa, ez da Nafarroako Errepideen Sarekoa eta Departamentu honek ez du ezer egitea aurreikusi.

2. Baiezkoan, zer denbora-epe igarota?

Aurreko galderan erantzun diogu horri.

3. Inolako ekintzarik egiteko asmorik ez badago, zer dela-eta?

Lehen galderaren erantzunean esan bezala, Nafarroako Errepideen Sarekoa ez delako.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluak ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 18an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

# Nafarroako ardoen sustapenari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Mª Aierdi Fernández de Barrena jaunak Nafarroako ardoen sustapenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko maiatzaren 10eko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du Nafarroako ardoen sustapenari buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

Jatorrizko deiturekin babestutako produktuen sustapen kanpainak kontseilu arau-emaileek bultzatzen dituzte, eta Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak diruz laguntzen ditu.

Jardunbide horri esker, lehia gero eta handiagoa dagoen arren, bereziki azken urteetan, lortu dugu Nafarroako Jatorrizko Deiturako ardoa nazio mailako rankinean leku onean egotea; horrek, une jakin batzuetako egoerak gorabehera, kontseilu arau-emailearen lanaren abal gisa balio du.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 18an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

---

# Vinsako plantilla berregituratzeari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Mª Aierdi Fernández de Barrena jaunak Vinsako plantilla berregituratzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko maiatzaren 10eko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du Vinsako plantilla berregituratzeari buruz. Hona erantzuna:

1. Lehenbizi, argitu beharra dago galderan aipatzen den erreferentziako datan, Vinsako Administrazio Kontseiluak Ana Saldaña Fernández ordezko kudeatzaile berria izendatu gabe zegoela. Kudeatzaile berria, Pablo Cámara Baztán jauna, 2001eko maiatzaren 16an izendatu zen. Sortutako bi atal berriak Zerbitzuak eta Obrak eta Proiektuak dira.

2. Vinsaren jarduera egokitu eta bultzatzea, sozietate publiko hori parte-hartze gero eta handiagoa izaten ari baita Nafarroako Gobernuak diseinaturiko etxebizitza-politikan.

3. Erabakimena Departamentuarena ez denez, ez du zertan iritzia eman. Betiere, gogorarazi behar da hautatutako pertsona Departamentuari atxikitako beste sozietate publiko baten kudeaketa-lanetan aritutakoa dela.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 25ean

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Javier Marcotegui Ros

## Galdera, haragi-irinak errausteko Portland enpresarekin hitzarmenik ba al dagoen jakiteko

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak haragi-irinak errausteko Portland enpresarekin hitzarmenik ba al dagoen jakiteko galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko maiatzaren 10eko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du haragi-irinak errausteko Portland enpresarekin hitzarmenik ba al dagoen jakiteko. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

2001eko martxoaren 15ean Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak eta “Cementos Porland, SA” enpresak hitzarmen bat sinatu zuten, “Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuaren eta ‘Cementos Porland, SA’ enpresaren arteko lankidetza hitzarmena, entzefalopatia espongiforme kutsagarriari (EEK) aurre egiteko neurrien gainekoa” izenpean.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 24an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

---

## Haragi-irinak errausteko Cementos Portland enpresarekin hitzarmen bat egitearen helburuei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlarmento de Navarra Parlamentuko Taldeak haragi-irinak errausteko Cementos Portland enpresarekin hitzarmen bat egitearen helburuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko maiatzaren 10eko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin haragi-irinak errausteko “Cementos Portland” enpresarekin hitzarmen bat egitearen helburuei buruz. Hona erantzuna:

“Cementos Porland” enpresarekin hitzarmen bat sinatzearen lehen helburua da industria eraldatzaileek sortutako haragi-irinak beste gai batzuekin batera erraustuz suntsitzea.

0 eta 529.190.000 pezeta bitartekoa da horren kostu ekonomikoa, inbertsioen exekuzioaren eta suntsitu beharreko irinen bolumenaren arabera.

Errausteko prozesua bost hilabeteren buruan hasiko dela aurreikusi da, Ingurumen Departamentuak aldeko txostena eman eta behar diren lizentziak eskuratzen direnetik kontatzen hasita; prozesuaren bukaera, berriz, lau urteren buruan izanen da.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 24an.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

# Hondakin arriskutsuak errausteko behar diren azpiegiturei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak hondakin arriskutsuak errausteko behar diren azpiegiturei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko maiatzaren 10eko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du hondakin arriskutsuak errausteko behar diren azpiegiturei buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

Hona gorpuak eta material arriskutsuak zuzenean errausteko instalazio bat diruz laguntzeko irizpideak:

a) Errausteko metodoaren baldintza teknikoak.

b) Ingurumen baldintzak.

c) Baldintza ekonomikoak.

d) Epea.

e) Lekua.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 24an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

# Hondakin arriskutsu bereziak errausteari eta Cementos Portland enpresako errauskailua instalatzeari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak hondakin arriskutsu bereziak errausteari eta Cementos Portland enpresako errauskailua instalatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko maiatzaren 10eko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du hondakin arriskutsu bereziak errausteari eta "Cementos Portland" enpresako errauskailua instalatzeari buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak modu ofiziosoan jakin du, Iruñerriko Mankomunitateko lehendakariaren bitartez, Mankomunitate horrek eta enpresa pribatu batek akordio bat sinatu dutela. Horri buruzko agiririk ez dugunez, ezin dugu horri buruzko xehetasunik eman, eta, horrenbestez, ezin dugu ezarritako epearen berri eman.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 24an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

# Turismo partzuergoentzako neurriak hartzeari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Mª Aierdi Fernández de Barrena jaunak turismo partzuergoentzako neurriak hartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko maiatzaren 10eko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du Turismo partzuergoentzako neurriak hartzeari buruz. Hona Industria, Lan, Merkataritza eta Turismo kontseilari Nuria Iturriagagoitia Ripoll andrearen erantzuna:

Ekonomia Departamentuak Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuarekin batera, erabaki zuen turismo partzuergoek BEZik ordaindu behar ez izatea beren kideen zerbitzu-prestazioengatik, betiere haien berariazko helburuak betetzeko lanak direnean, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen 19. artikuluari jarraituz.

Gainera, neurri hori atzera eraginez aplikatzea erabaki zen, hain zuzen ere partzuergoen egoera erregularizatzeko.

Merkataritza zein Turismo eta Ogasun zuzendari nagusiek neurri horiek jakinarazi eta azaldu zizkieten partzuergoetako ordezkariei, haiekin 2000ko abenduaren 21ean eginiko bileran. Bilera horretan, partzuergo bakoitzak salbuespen hori berariaz eskatu behar zuela jakinarazi zitzaien, martxoaren 8ko 86/1993 Foru Dekretuaren bidez BEZerako ezarritako Erregelamenduko 5. artikuluari jarraituz: partzuergo guztiek horixe egin dute, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak emaniko informazioari jarraituz.

Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak lanean jarraitzen du turismo-partzuergoek izan ditzaketen finantza-arazoei konponbidea emateko, Foru Komunitateko turismo-garapenerako tresna egokiak direla jotzen baitugu.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 23an

Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagagoitia Ripoll

# Hondakin arriskutsu bereziak jatorri dituzten irinak errausteak eragindako gastuen finantziazioari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak hondakin arriskutsu bereziak jatorri dituzten irinak errausteak eragindako gastuen finantziazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko maiatzaren 10eko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Hondakin arriskutsu bereziak jatorri dituzten irinak errausteak eragindako gastuen finantziazioari buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak modu ofiziosoan jakin du, Iruñerriko Mankomunitateko lehendakariaren bitartez, entitate horrek eta Cementos Rezola enpresak hitzarmen bat sinatu dutela. Departamentu honek, ordea, ez du hori egiaztatzeko inolako agiririk eskueran.

Ez dago Estatuaren laguntzarik hitzarmen kasu zehatzetarako, ez eta foru gobernuaren dirulaguntzarik ere galderan planteatzen den kasu jakin horretarako.

Hala eta guztiz ere, Iruñerriko Mankomunitatearekin hitz egiten ari gara material arriskutsuen tratamenduaren ondoriozko hondakinak suntsitzeko kostuaren finantzaketa bidea aurkitzeko.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 24an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

---

# Haragi-irinak errausteko Cementos Portland enpresarekin hitzarmen bat egitearen egokitasunari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak haragi-irinak errausteko Cementos Portland enpresarekin hitzarmen bat egitearen egokitasunari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko maiatzaren 10eko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Haragi-irinak errausteko Cementos Portland enpresarekin hitzarmen bat egitearen egokitasunari buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuaren ustez, komenigarri eta beharrezkoa da Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak eta “Cementos Porland” enpresak lankidetza hitzarmen bat sinatzea, haragi-azpiproduktuen eraldaketan aritzen diren Nafarroako industriek sortutako 16.000 inguru tona irin suntsitzeko.

Nafarroako Gobernuak ez daki zein den Iruñerriko Mankomunitateak eta “Cementos Rezola” enpresak sinaturiko akordioa.

"Cementos Porland, SA" enpresarekin sinaturiko hitzarmenaren erreferentziako kostua 12 pta/kg da, urteko 16.000 tona errausteko.

2001eko martxoaren 16ko foru aginduak abere hilak eta entzefalopatia espongiforme kutsagarriei lotutako materialak zuzenean errausteko erraustegi bat ezartzeko dirulaguntza bat lehiaketa bidez emateko arauak sortzen ditu. Hori dela eta, argi dago ez dela oztopo haragi-irinak suntsitzeko.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 24an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

---

# Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak kontratatutako obra eta zerbitzuei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Jorge Mori Igoa jaunak Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak kontratatutako obra eta zerbitzuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko maiatzaren 10eko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Jorge Mori jaunak galdera egin du Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak kontratatutako obra eta zerbitzuei buruz. Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak jakinarazten dizu kontrataturiko obra eta zerbitzuak direla idazki honekin batera doan dokumentazioan aipatzen direnak.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 28an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Javier Marcotegui Ros

(Oharra: Aipatu dokumentazioa foru parlamentarien eskura dago Parlamentuko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan.)

---

# Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak kontratatutako obra eta zerbitzuei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Jorge Mori Igoa jaunak Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak kontratatutako obra eta zerbitzuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko maiatzaren 10eko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Jorge Mori jaunak galdera egin du Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak kontratatutako obra eta zerbitzuei buruz. Nafarroako Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraikiz, hona hemen Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

ANTOLAKETA ETA INFORMAZIO SISTEMEN ZUZENDARITZA NAGUSIA

Antolaketa eta Informazio Sistemen Zuzendaritza Nagusian dauden datuen arabera, 1996ko urriaren batetik 2000ko abenduaren 31ra bitarte honako obra kontratu hauek tramitatu dira:

| Urtea | Kontratua | Adjudikazio-hartzailea | Modalitatea | Lizitazioa | Prezioa (PTA) Adjudikazioa | Exekuzioa |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1999 | Sare lokal eta elektriko behin-behinekoa paratzea NAPIn, Nafarroako Parlamenturako 1999ko ekainaren 13ko hauteskundeak zirela eta. | Electrificaciones Aralar S.A.L. . | P. negoziatua publizitatearekin eta lehiarekin. | 2.000.000 | 1.990.567 | 1.976.147 |

Era berean, esan beharra dago denbora tarte horretan Antolaketa eta Informazio Sistemen Zuzendaritza Nagusiak ez zuela zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratu bat bera ere tramitatu.

BARNE ZUZENDARITZA NAGUSIA

Barne Zuzendaritza Nagusian dauden datuen arabera, 1996ko urriaren batetik 2000ko abenduaren 31ra bitarte honako obra kontratu hauek tramitatu dira:

| Urtea | Kontratua | Adjudikazio-hartzailea | Modalitatea | Lizitazioa | Prezioa (PTA) Adjudikazioa | Exekuzioa |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1996 | Belosoko parkeko hartune elektrikoaren lanak | Montajes Electrónicos NOI, S.A.L. | P. Negoziatua | 1.300.000 | 1.266.982 | 1.266.982 |
| 1996 | Belosoko parkeko aldagelen eta bulegoen lanak | Construcciones Zaratiegui, S.L. | Lehiaketa publikoa | 38.817.839 | 36.178.358 | 36.178.358 |
| 1997 | Belosoko parkea berritzea | La Guareña, S.A. | P. Negoziatua | 1.440.518 | 1.440.518 | 1.440.518 |
| 1997 | Miluzeko heliportuaren lanak | Asfaltos de Biurrun, S.A. | P. Negoziatua | 3.823.280 | 3.385.804 | 3.385.804 |
| 1997 | Nafarroako jauregiaren teilatupea berritzea (SOS) | La Guareña, S.A. | Enkantea | 16.933.032 | 15.578.389 | 15.578.389 |
| 1997 | Informazio dinamikoaren sistema paratzea | Floria Diseño, S.A. | P. Negoziatua | 19.687.118 | 19.687.118 | 19.687.118 |

| Urtea | Kontratua | Adjudikazio-hartzailea | Modalitatea | Prezioa (PTA) Lizitazioa | Adjudikazioa | Exekuzioa |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1998 | Airea berriztatzeko sistema paratzea (SOS) | La Guareña, S.A. | P. Negoziatua | 3.289.281 | 3.289.281 | 3.289.281 |
| 1998 | Foruzaingoko bulegoetan leihoak jartzea | Renoven, S.A.L. | P. Negoziatua | 3.176.848 | 3.176.848 | 3.176.848 |
| 1998 | Foruzaingoaren atsedenlekua | La Guareña, S.A. | P. Negoziatua | 2.699.901 | 2.670.855 | 2.670.855 |
| 1998 | Altsasuko suhiltzaile parkea berritzeko lanak | Nasipa, S.L. | Enkantea | 27.137.773 | 26.323.640 | 29.214.312 |
| 1998 | Nabaskozeko suhiltzaile parkea berritzeko lanak | Nasipa, S.L. | Enkantea (eman gabe). P. Negoziatua | 29.291.974 | 29.275.198 | 30.932.695 |
| 1998 | Foruzaingoaren aldagelak klimatizatzea | Soniclima Industrial, S.L. | P. Negoziatua | 1.300.000 | 834.156 | 834.156 |
| 1998 | Belosoko parkeko eraikin nagusia berritzea | La Guareña, S.A. | Enkantea | 48.180.449 | 46.253.231 | 51.874.044 |
| 1998 | Belosoko parkea ixteko lanak | La Guareña, S.A. | P. Negoziatua | 18.615.481 | 16.847.010 | 22.995.223 |
| 1998 | SOS lokaleko suteen kontrako sist. | Euromeysh, S.L. | P. Negoziatua P.P. | 800.000 | 707.129 | 707.129 |
| 1998 | SOS lokalaren sarb. kont. hand. | Euromeysh, S.L. | P. Negoziatua | 796.879 | 796.879 | 796.879 |
| 1998 | Tuterako Foruzaingoaren komisaria eraikitzeko lanak | Constructora Hispánica, S.A. | P. Murriztua enkantea | 541.861.049 | 424.927.430 | En ejecución |
| 1999 | SOS lokalak berritzea | La Guareña, S.A. | P. Negoziatua laburtua | 4.100.000 | 4.012.957 | 4.012.957 |
| 1999 | Ibilgailuen parkean garbitokia paratzea | Distribuidora Caballero, S.A. | Lehiaketa | 7.000.000 | 6.623.407 | 6.623.407 |
| 1999 | Foruzaingoaren lokaletan CMC paratzea | Ignacio García Navarro | P. Negoziatua laburtua | 4.597.370 | 4.597.370 | 4.933.226 |
| 1999 | Oronoz-Mugairiko suhiltzaile parkearen lanak | Construcciones Elizondo | Negoziatua P.P. (erman gabe) P. Negoziatua | 11.660.000 | 11.660.000 | 12.286.980 |
| 1999 | Foruzaingoaren bulego. lanak | La Guareña, S.A. | P. Negoziatua laburtua | 3.050.766 | 3.050.766 | 3.050.766 |
| 1999 | Belosoko tailerrak berritzea | La Guareña, S.A. | P. Negoziatua laburtua | 1.336.061 | 1.223.001 | 1.223.001 |
| 2000 | Tafallako suhiltzaile parkeko berokuntza | Tafonca, S.L. | P. Negoziatua laburtua | 2.422.759 | 2.000.623 | 2.000.623 |
| 2000 | Lodosako suhiltzaile parkeko berokuntza | Carlos Mazzucco Nicolás | P. Negoziatua laburtua | 2.236.281 | 1.473.429 | 1.424.533 |
| 2000 | Aurizko suhiltzaile parkeko lanak | Construcciones Elizondo | P. Negoziatua P.P. | 15.300.000 | 15.300.000 | 17.200.000 |
| 2000 | Tuterako urbanizazio lanak | Alcer, S.L. | Lehiaketa | 162.401.412 | 136.043.656 | En ejecución |
| 2000 | Nafarroako Jauregiko ezkaratzeko lanak | La Guareña, S.A: | Lehiaketa (eman gabe) P. Negoziatua | 23.382.076 | 23.148.225 | 23.148.225 |

Era berean, esan beharra dago denbora tarte horretan Barne Zuzendaritza Nagusiak ez zuela zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratu bat bera ere tramitatu.

JUSTIZIA ZUZENDARITZA NAGUSIA

Antolaketa eta Informazio Sistemen Zuzendaritza Nagusian dauden datuen arabera, 1996ko urriaren batetik 2000ko abenduaren 31ra bitarte (eskura dagoen informazioa 1999an hasten bada ere, orduantxe eskuratu baitziren justizia arloko eskumenak) honako obra kontratu hauek tramitatu dira:

| Urtea | Kontratua | Adjudikazio-hartzailea | Modalitatea | Lizitazioa | Prezioa (PTA) Adjudikazioa | Exekuzioa |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 2000 | Puy-ko Andra Mari kaleko lokala berritzeko proiektuaren erredakzioa eta lanen zuzendaritza teknikoa | ARQ-Arquitectos | Negoziatua prentsan iragarrita | 1.950.000 | 1.500.000 | 1.050.000 |
| 2000 | Puy-ko Andra Mari kaleko lokala berritzeko lanen exekuzioa | La Guareña, S.A. | Lehiaketa | 34.169.470 | 31.606.760 | En ejecución |
| 2000 | Lizarrako epaitegietako beheko solairua berritzeko proiek. erredak. | José Mª Errea Argaiz | Negoziatua prentsan iragarrita | 1.950.000 | 1.900.000 | 1.900.000 |
| 2000 | Tuterako epaitegietako oztopo fisikoak kentzeko proiektuaren erredakzioa | ARQ-Arquitectos | Negoziatua prentsan iragarri gabe | 495.000 | 450.000 | 450.000 |
| 1999 | Tuterako epaitegietan aire girotua paratzea | Idoyabidea Instaladores, S.L. | Negoziatua prentsan iragarri gabe | 1.800.000 | 1.133.094 | 1.133.094 |
| 2000 | Zuzendaritza nagusian igogailua paratu eta eskailera berritzea | La Guareña, S.A. | Negoziatua prentsan iragarrita | 6.705.690 | 6.169.235 | Pte. de pago |
| 2000 | Justizia Auzitegirako sarrerak kontrolatzeko segurtasun proiektuaren obra osagarria | La Guareña, S.A. | Negoziatua prentsan prentsan iragarri gabe | 3.743.966 | 3.706.526 | Pte. de pago |
| 2000 | Agoizko epaitegien eraikin berriaren proiektua erredaktatzea | Miguel Angel Garaikoetxea Urriza | Lehiaketa | 6.000.000 | 5.600.000 | 5.600.000 |
| 2000 | Lizarrako epaitegietako 1 eta 2. solairuetako proiektua erredak. | José Mª Errea Argaiz | Negoziatua prentsan prentsan iragarri gabe | 1.900.000 | 1.821.200 | 1.821.200 |
| 2000 | Justizia Auzitegiko 2 eta 3. solairuak berritzeko lanak 4. instrukzio epaitegiko epailearen bulegoa sortzea | Mastil Marco Construcciones, S.L. | Negoziatua prentsan iragarrita | 6.195.881 | 5.403.359 | 5.285.711 |
| 2000 | Justizia Auzitegiko kristalak eta zenbait bulego garbitzea | Limpiezas Garayalde Navarra, S.A. | Lehiaketa | 7.800.000 | 5.435.955 | 5.435.955 |
| 2000 | Institutu Anatomiko eta Forentsea garbitzea | Limpiezas y servicios Maju, S.L. | Negoziatua prentsan iragarrita | 900.000 | 897.840 | 897.840 |
| 2000 | Itzulpengintza eta interpretazio lanak | CCI, Centro de Comunic. Internacional, S.L. | Negoziatua prentsan iragarrita | 4.000.000 | 4.000.000 | 2.556.141 |
| 2000 | Bidasoaren jardunaldiak eta urte judizialari hasiera emateko ekitaldia | Congresos Navarra, S.L. | Lehiaketa | 6.500.000 | 6.498.588 | 7.116.214 |

NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN INSTITUTUA

Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuan dauden datuen arabera, 1996ko urriaren batetik 2000ko abenduaren 31ra bitarte honako obra kontratu hauek tramitatu dira:

| Urtea | Kontratua | Adjudikazio-hartzailea | Modalitatea | Lizitazioa | Prezioa (PTA) Adjudikazioa | Exekuzioa |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1996 | Segurtasun Eskolako gimnasio zureria metalikoa konpontzea | José María Iza Mendive jn. (15.768.776) | PN | 891.692 | 891.692 | 891.692 |

| Urtea | Kontratua | Adjudikazio-hartzailea | Modalitatea | Prezioa (PTA) Lizitazioa | Adjudikazioa | Exekuzioa |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1996 | Segurtasun Eskolako ekitaldi aretoko argizuloa konpontzea | Mástil Marco Construcciones, S.L. (B31530421) | PN | 1.444.495 | 1.444.495 | 1.444.495 |
| 1996 | Leihoak konpontzea | Marma Servicios Inmobiliarios, S.L. (B31536659) | PN | 542.271 | 542.271 | 542.271 |
| 1996 | Informatikako 2. ikasgela egokitzea | Marma Servicios Inmobiliarios, S.L. (B31536659) | PN | 993.357 | 993.357 | 917.318 |
| 1996 | Harrera gelako eta 1. ikasgelako lurra eta paretak konpontzea | Construcciones Lamberto, S.A. (A31177264) | F | _ | _ | 259.149 |
| 1996 | Sabaia jasotzea, instalazio elektrikoa aldatzea eta 7. ikasgelako manpara egokitzea | Mástil Marco Construcciones, S.L. (B31530421) | F | _ | _ | 127.600 |
| 1996 | Zenbait konponketa | Marma Servicios Inmobiliarios, S.L. (B31536659) | F | _ | _ | 285.017 |
| 1996 | 6. ikasgela egokitzea | Marma Servicios Inmobiliarios, S.L. (B31536659) | F | _ | _ | 199.700 |
| 1996 | Lanparak egokitzea | Construcciones Lamberto, S.A. (A31177264) | F | _ | _ | 276.952 |
| 1996 | Teilatua konpontzea | Construcciones Lamberto, S.A. (A31177264) | F | _ | _ | 253.094 |
| 1997 | NAPIko 2. ikasgela egokitzeko lanak | Construcciones Lamberto, S.A. (A31177264) | PN | 1.087.446 | 1.087.446 | 1.087.446 |
| 1997 | Segurtasun Eskolako lorategian ureztaketa sistema bat paratu eta egokitzea | Todojardín, S.L. (B31442502) | PN | 1.116.657 | 1.116.657 | 1.300.633 |
| 1997 | NAPIko Prestakuntza Zerbitzuko leihoak egokitzea | José Mª Iza Mendive (15.768.776) | PN | 1.719.700 | 1.719.700 | 1.719.700 |
| 1997 | Segurtasun Eskolako ikasgela berriak, biltegia eta ikasgela nagusia biltzen dituen eraikineko teilatuaren erdia konp. | Lorenzo Aceituno Sánchez (33.430.413M) | PN | 986.000 | 986.000 | 986.000 |
| 1997 | Ekitaldi aretoaren aldameneko bilera gela egokitzapenaren proiektua erredaktatzea, obra zuzendaritza eta exekuzioa. | Ana Urrutia Zabalza (15.616.034T) | PN | 1.573.080 | 1.573.080 | 1.573.080 |
| 1997 | 6. ikasgelaren erabilera aldatu eta atseden gela gisa egokitzeko proiektua erredaktatzea, obra zuzendaritza eta exekuzioa. | Ana Galbete Martinicorena (15.726.796V) | PN | 1.970.873 | 1.970.873 | 2.325.527 |
| 1997 | NAPIko liburutegia egokitzeko proiektua erredaktatzea, obra zuzendaritza eta exekuzioa. | Ana Urrutia Zabalza (15.616.034) | PN | 1.840.386 | 1.840.386 | 1.840.386 |
| 1997 | 2. solairuko konponketak | Construcciones Lamberto, S.A. (A31177264) | F | _ | _ | 94.714 |
| 1997 | NAPIren eraikineko konponketak | Construcciones Lamberto, S.A. (A31177264) | F | _ | _ | 318.693 |
| 1997 | Zenbait konponketa | Construcciones Lamberto, S.A. (A31177264) | F | _ | _ | 157.279 |
| 1997 | Zenbait konponketa | Construcciones Lamberto, S.A. (A31177264) | F | _ | _ | 370.086 |

| Urtea | Kontratua | Adjudikazio-hartzailea | Modalitatea | Prezioa (PTA) Lizitazioa | Adjudikazioa | Exekuzioa |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1997 | NAPIren eraikineko konponketak | Mástil Marco Construcciones, S.L. (B31530421) | F | _ | _ | 388.090 |
| 1997 | NAPIren eraikineko konponketak | Mástil Marco Construcciones, S.L. (B31530421) | F | _ | _ | 295.581 |
| 1997 | Iragarki taularen erreforma | Mástil Marco Construcciones, S.L. (B31530421) | F | _ | _ | 104.043 |
| 1997 | Segurtasun Eskolako zenbait konponketa | Mástil Marco Construcciones, S.L. (B31530421) | F | _ | _ | 170.552 |
| 1997 | Segurtasun Eskolako zenbait konponketa | Mástil Marco Construcciones, S.L. (B31530421) | F | _ | _ | 106.720 |
| 1997 | Konponketak eta mantentze lanak | Mástil Marco Construcciones, S.L. (B31530421) | F | _ | _ | 124.327 |
| 1997 | Segurtasun Eskolako teilatuen konponketa | Lorenzo Aceituno Sánchez (33.430.413M) | F | _ | _ | 44.080 |
| 1997 | Segurtasun Eskolako zenbait konponketa | Lorenzo Aceituno Sánchez (33.430.413M) | F | _ | _ | 88.856 |
| 1998 | Pedro Mayoko instalazioak egokitzea bi ikasgela irekitzeko | Lorenzo Aceituno Sánchez ( 33.430.413) | PN | 1.834.864 | 1.834.864 | 1.834.864 |
| 1998 | Segurtasun Eskolak erositako material informatikoa erabiltzeko sarea ezartzea Seta lan elektronikoak | Urrobi, S.L. (B31515539) | PN | 1.500.000 | 1.239.985 | 1.186.598 |
| 1998 | Pedro Mayoko instalazioak hirugarren ikasgela eta komunak irekitzeko egokitzeko lanak | Construcciones Lamberto, S.A. (A31177264) | PN | 1.131.180 | 1.131.180 | 1.131.180 |
| 1998 | Segur. Esk. Ikasgela Nagusian luzernariorako olana jartzea | Talleres Marcotegui, S.L. (B31007925) | PN | 586.396 | 586.396 | 586.396 |
| 1998 | NAPIko konponketak | Lorenzo Aceituno Sánchez (33.430.413) | F | _ | _ | 243.600 |
| 1998 | Seg. Esk. lorategietako konponk. | Todojardín, S.L. (B31442502) | F | _ | _ | 92.800 |
| 1998 | Luzernarioa konpontzea | Edeg, S.L. (B31143878) | F | _ | _ | 524.145 |
| 1998 | Luzernarioa konpontzea | Edeg, S.L. (B31143878) | F | _ | | 110.432 |
| 1998 | Foku alogenoak jartzea | Ana Urrutia Zabalza ( 15.616.034T) | F | _ | _ | 104.502 |
| 1998 | Aisialdiko aretoan errezelak jartzea | Ana Urrutia Zabalza ( 15.616.034T) | F | _ | _ | 190.796 |
| 1999 | NAPIko konponketak | Construcciones Lamberto, S.A. (A31177264) | F | _ | _ | 115.658 |
| 1999 | NAPIko konponketak | Construcciones Lamberto, S.A. (A31177264) | F | _ | _ | 500.000 |
| 1999 | NAPIko konponketa lanak | Construcciones Lamberto, S.A. (A31177264) | F | _ | _ | 263.732 |
| 1999 | Luzernarioa konpontzea | Edeg, S.L. (B31143878) | F | _ | _ | 110.432 |
| 1999 | NAPIko teilatu-hegala konpontzea | Edeg, S.L. (B31143878) | F | _ | _ | 29.986 |
| 1999 | NAPIko teilatua konpontzea | Edeg, S.L. (B31143878) | F | _ | _ | 435.870 |
| 1999 | NAPIko teilatua konpontzea | Edeg, S.L. (B31143878) | F | _ | _ | 102.399 |

| Urtea | Kontratua | Adjudikazio-hartzailea | Modalitatea | Prezioa (PTA) Lizitazioa | Adjudikazioa | Exekuzioa |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1999 | Berogailuak konpontzea | Edeg, S.L. (B31143878) | F | _ | _ | 489.091 |
| 1999 | NAPIko konponketa lanak | Edeg, S.L. (B31143878) | F | _ | _ | 53.360 |
| 1999 | NAPIko konponketa lanak | Edeg, S.L. (B31143878) | F | _ | _ | 255.258 |
| 1999 | Konponketak | Garbo Decoración, S.L. (B31090236) | F | _ | _ | 58.116 |
| 1999 | Segurtasun Eskolako tatamia konpondu eta egokitzea | Concoex, S.L. (E31233208) | F | _ | _ | 204.102 |
| 1999 | NAPIko teilatua konpontzea | Edeg, S.L. (B31143878) | F | _ | _ | 435.870 |
| 1999 | NAPIko teilatua konpontzea | Edeg, S.L. (B31143878) | F | _ | _ | 102.399 |
| 1999 | Berogailuak konpontzea | Edeg, S.L. (B31143878) | F | _ | _ | 489.091 |
| 1999 | NAPIko konponketa lanak | Edeg, S.L. (B31143878) | F | _ | _ | 53.360 |
| 1999 | NAPIko konponketa lanak | Edeg, S.L. (B31143878) | F | _ | _ | 255.258 |
| 1999 | NAPIko konponketa lanak | Edeg, S.L. (B31143878) | F | _ | _ | 155.173 |
| 1999 | NAPIko konponketa lanak | Edeg, S.L. (B31143878) | F | _ | _ | 430.012 |
| 2000 | Segurtasun Eskolaren Zerbitzuko margotze lanak | José Luis Vidan Lizari | PN | 1.900.000 | 1.233.657 | 1.339.142 |
| 2000 | NAPIren Zerbitzu Osagarrien Bulegoa berritzeko obrak. Igeltserotza lanak | Construcciones La Guareña, S.A. | PN | 562.496 | 562.496 | 562.496 |
| 2000 | Id. Isolatzaileak | Aislamientos labrit, S.A. | PN | 185.303 | 168.321 | 168.321 |
| 2000 | Id. Margotze lanak | José Luis Vidán Lizari | PN | 117.703 | 105.485 | 313.366 |
| 2000 | Id. Iturgintza lanak | Eguiluz (Foninca, S.L.) | PN | 109.968 | 79.611 | 79.611 |
| 2000 | Id. Zurgintza lanak | Majima, S.L. | PN | 3.141.635 | 3.141.635 | 3.451.046 |
| 2000 | Id. Kristalak | Eurovidrio,S.A.L. | PN | 519.126 | 519.126 | 646.448 |
| 2000 | Id. Elektrizitatea | Javier Asiáin Aragón | PN | 701.965 | 664.458 | 736.684 |
| 2000 | Segurtasun Eskolako gimnasioko parkeko zoladura konpontzea | Importación Maderera Villava, S.L . | F | _ | _ | 244.296 |
| 2000 | Segurtasun Eskolako itxitura aldatzeko obra egitea | Construcciones La Guareña, S.A. | PN | 4.950.000 | 4.207.499 | 4.207.499 |
| 2000 | Segurtasun Eskolako dutxetako konponketak | José Luis Vidán Lizari | F | _ | _ | 239.795 |
| 2000 | Segurtasun Eskolako konponketak | José Luis Vidán Lizari | F | _ | _ | 290.473 |
| 2000 | Segurtasun Eskolako Arte Martzialen ikasgelako konponketak | Crespo Obanos, María y Obanos Munilla, M.A.R. | F | | | 276.080 |

F: faktura
PN: prozedura negoziatua publizitaterik gabea (3 eskaintza)

Era berean, esan beharra dago denbora tarte horretan Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak ez zuela zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratu bat bera ere tramitatu.

Hori guztia jakinarazi dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 28an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin.

## Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuak kontratatutako obra eta zerbitzuei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Jorge Mori Igoa jaunak Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuak kontratatutako obra eta zerbitzuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko maiatzaren 10eko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Jorge Agustin Mori Igoa jaunak galdera egin du Hezkuntza eta Kultura Departamentuak kontratatutako obra eta zerbitzuei buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren erantzuna:

1996ko urriaren 1etik 2000ko abenduaren 31ra bitarte zenbat obra eta zerbitzu kontratatu dituzten departamentu horrek eta haren sozietate instrumentalek, honakoak zehaztuta:

– adjudikaturiko obra edo zerbitzuaren pertsona fisiko edo juridiko adjudikazio-hartzailea, kontratazio mota adierazita.

– obra edo zerbitzu bakoitzaren lizitazio, adjudikazio eta exekuzio prezioak.

Behar diren dokumentuak erantsi ditugu.

Hori guztia jakinarazi dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 24an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda

(Oharra: Aipatu dokumentuak foru parlamentarien eskura daude Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan.)

## Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak kontratatutako obra eta zerbitzuei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Jorge Mori Igoa jaunak Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak kontratatutako obra eta zerbitzuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko maiatzaren 10eko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Jorge Agustín Mori Igoa jaunak galdera egin du Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak kontratatutako obra eta zerbitzuei buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

Honekin batera doa Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak eta hari atxikitako sozietate publikoek 1996ko urriaren 1etik 2000ko abenduaren 31ra bitarte kontrataturiko obra eta zerbitzuen zerrenda.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 25ean.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

(Oharra: Aipatu dokumentazioa foru parlamentarien eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan.)

# Toki azpiegiturei buruzko 2001-2003rako planean sartutako toki entitateek aurkeztu dituzten proiektuei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Mª Aranaz Echarri jaunak Toki azpiegiturei buruzko 2001-2003rako planean sartutako toki entitateek aurkeztu dituzten proiektuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko maiatzaren 22ko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Mª Aranaz Echarri jaunak galdera egin du Toki azpiegiturei buruzko 2001-2003rako planari buruz. Hona Toki Administrazioko kontseilariaren erantzuna:

Zein da toki entitateek aurkezturiko proiektuen (bai planean sarturikoen bai bertan sartu gabekoen) zerrenda osoa?

Zein dira aurkezturiko proiektuen puntuazio partzialak eta guztizkoak, eta, hiru urteko planean sartzeari dagokionez, zein hurrenkeratan gelditu dira?

Eskatutako obra guztien eta puntuazioen zerrenda erantsi dugu.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 25ean.

Toki Administrazioko kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

(Oharra: Aipatu dokumentazioa foru parlamentarien eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan.)

---

# Eraikin publikoetan arkitektura trabak kentzeari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak eraikin publikoetan arkitektura trabak kentzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko otsailaen 26ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**Ekonomia eta Ogasun Kontseilariaren erantzuna**

Begoña Errazti Esnal andreak 2001eko otsailaren 14an aurkezturiko parlamentu-galderari dagokionez, hauxe jakinarazi behar da:

Gobernuaren egituran ez dago trabak kentzeaz berariaz arduratzen den ezein administrazio-unitaterik. Departamentu bakoitzak kudeatzen ditu atxikirik dauzkan lokal edo eraikinak. Beraz, erantzun zuzen bat emateko beharrezkoa litzateke informazioa eskuratzea Idazkaritza Tekniko bakoitzetik.

Ondare Zerbitzuari dagokionez, hauxe esan liteke:

Lokal berriak erosi eta errentan hartzeari dagokionez, Ondare Zerbitzuak (eginkizun horiek eta aipaturiko lokalak egokitzea bere ardura baitira) arreta handiz hartzen du kontuan horietan sartu eta ateratzeko erraztasunaren irizpidea, eta nahitaezko baldintza gisa ezartzen du zerbitzu publikoetarako direnetarako. Adibide gisa aipa daitezke Monjardin kaleko bulegoak, zeinak datorren errenta-kanpainan erabiltzekoak baitira, Erletokieta kaleko bulegoak (obretan daude), Funtzio Publiko eta Barne arloko zenbait unitatek erabiltzekoak, Nafarroako Aldizkari Ofizialaren Zerbitzu berriko bulegoak, Leire kalean kokatuak, edo Gizarte Ongizateak eta Ondare Zerbitzuak berak

Yanguas y Miranda kalearen 27. zenbakian izanen dituzten bulegoak.

Gobernuko eta beste erakunde batzuetako administrazio-unitateek eskatuta egiten diren birgaitze- eta zaharberritze-obrei dagokienez, trabak kendu beharra sistematikoki agintzen da (hori ahal den heinean). Adibide gisa aipa litezke Parlamentuak Arrieta kalean daukan eraikineko bigarren solairuan eginiko eraldatzea (egokituriko komunak jarri ziren, nahiz eta sarrera nagusiko arazoa oraindik ere bere horretan dagoen), Ibilgailuen Parkeko egoitza berria, Cordovillan lehen Super-Ser zegoen eraikinean kokaturiko herrilanmakineriarako biltegia eta bulegoak, Erriberrin dagoen Ardoaren Museoa, Nafarroako Kontseiluaren egoitza (proiektuan) eta abar.

Behin edo behin, Departamentuek eskatuta, trabak kentzeko berariazko ekintzak ere egin izan dira: Antso Azkarraren etorbidean kokaturiko errenta-bulego zaharrak, Tafallako errenta-bulegoa, Lizarrako errenta-bulegoa (gaur egun, azterketa-fasean).

Iruñean, 2001eko martxoaren 19an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

## Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du eraikin publikoetan arkitektura trabak kentzeari buruz. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Arkitektura-trabak kentzeko beharrezkoak diren obrak egiteari ekin al dio Nafarroako Gobernuak bere jabetzakoak diren eraikinetan, minusbaliatuei haietan sartzea errazteko?

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari dagokionez, bere eraikinetan sartu ahal izateko arazoak pixkanaka konpontzen joan dira, eta haietan edozein eraldaketa egin ahal izateko eskatzen da sartu eta atera ahal izateari buruzko araudia (arkitektura-trabei buruzkoa ere deritzona) bete dezatela arkitektura-proiektuek eta haien gauzatzeek.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko apirilaren 6an.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

## Toki Administrazioko kontseilariaren erantzuna

Eraikin publikoetan arkitektura-trabak kentzeari buruz foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak eginiko galderari dagokionez,

Arkitektura-trabak kentzeko beharrezkoak diren obrak egiteari ekin al dio Nafarroako Gobernuak bere jabetzakoak diren eraikinetan, minusbaliatuei haietan sartzea errazteko?

Toki Administrazioko Departamentuak eraikin bat dauka beretzat soilik atxikia, eta bertan daude Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko bulegoak. Bulego horiek kokatuta dauden eraikina Nafarroako Gobernuko Nekazaritza Departamentuaren egoitza da, eta sarrera-irteerak departamentu horren eskumenekoak dira.

Iruñean, 2001eko martxoaren 26an

Toki Administrazioko kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

## Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du eraikin publikoetan arkitektura-trabak kentzeari buruz. Hona Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari dagokionez, asmoa da Departamenturako egoitza berria eraikitzea, González Tablas eta Zangoza kaleen kantoian. Egoitza horrek oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko uztailaren 11ko 4/1998 Foru Legean sarrera-irteerei buruz ezarritako betekizun guztiak beteko ditu. Egun hauetan abian da eraikin hori egiteko proiektua agintzeko prozesua.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 181. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko martxoaren 16an.

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Javier Marcotegui Ros

## Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du eraikin publikoetan arkitektura-tra-

bak kentzeari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

Lehenik eta behin, Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren egoitza, Santo Domingo kalean kokatua, minusbaliatuak bertan sartu ahal izan daitezen behar bezala egokitua dago, eta igogailuak dauzka, bertako solairu guztiak (sotoa eta garajeak barne) elkarrekin komunikatu ahal izateko.

Vianako Printzea Erakundeari dagozkion eraikinez denaz bezainbatean, berriki eraikitakoek araudia betetzen dute. Eraikin historiko eta monumentalei dagokienez, monumentuaren izaerak ahalbidetzen duen heinean, arkitektura-trabak kentzeko ahaleginak egiten dira, ondare historiko-artistikoa babestu beharrak ezartzen dituen baldintzak kontuan hartuz.

Nafarroako Gobernua titularra deneko ikastetxeei dagokienez (Bigarren Hezkuntzako Institutuak, Hizkuntza Eskolak, Arte Eskolak eta Kontserbatorioa), eraikin berrietarako proiektuak araudian agindutakoari jarraituz egiten dira, eta berdin jokatzen da eraikin batean eraldaketak edo birgaitzeak egiten direnean, baldin eta haiek handiak badira eraikinaren osotasunarekiko. Gainerako ikastetxeetan, urteak dira ekintzak etengabe abian direla, eta kasuan kasuko ekitaldi ekonomikoan dauden akatsak zuzentzen dira. Prozesu hori dela medio, gaur egun egiazta dezakegu Nafarroako Gobernuaren titulartasuneko edo erantzukizun zuzeneko ikastetxeen %85ek behar bezala betetzen dutela arkitektura-trabak kentzearen arloan indarra duen araudiak agindutakoa. Ziurta daiteke datozen bi ekitaldietan burututa egonen direla arlo honetan oraindik egiteke dauden ekintzak.

Udalen titulartasuneko ikastetxeei dagokienez (Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeei buruz ari gara), kasuan kasuko udal edo kontzejuak antzeko ekintzak ari dira egiten. Gogoan izan behar da ikastetxeen titular diren toki erakundeek dutela zuzeneko erantzukizuna, kasu honetan. Horretarako, inbertsiorako laguntzak eska ditzakete, udalen jabetzako ikastetxeei diru laguntzak emateko urtero egiten den deialdira aurkeztuz.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko apirilaren 25ean

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús Mª Laguna Peña

**Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren erantzuna**

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du eraikin publikoetan arkitektura-trabak kentzeari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren erantzuna:

Arkitektura-trabak kentzeko beharrezkoak diren obrak egiteari ekin al dio Nafarroako Gobernuak bere jabetzakoak diren eraikinetan, minusbaliatuei haietan sartzea errazteko?

Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak, zeina Iruñeko Arrieta kalean kokatua baitago, Paulino Caballero kaleko 6. zenbakiko eta Arrieta kaleko 25. zenbakiko ezkaratzen bidezko sarbideez gain badu, haietatik bereizirik, sarbide nagusi bat. Minusbaliotasun fisikoak dituztenei sarrera-irteerak erraztu ahal izateko asmoz, Institutu horrek obra-proiektu bat dauka, arkitektura trabak kentzeko eta igogailu bat jartzeko. Lehen aipaturiko ezkaratzetan ere igogailuak dauden arren, proiektuko igogailuak ate nagusitik zuzenean sartzea ahalbidetuko du. Obra horiek udan eginen dira, Institutuko langileen oporrak aprobetxatuz, eta bertara joan nahi duten pertsonei eragozpen ahalik gutxienak sortzen saiatuz.

Institutu horren ardurapeko gainerako zentroetan aztergai dugun arloan indarra duten xedapenak betetzen dira.

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuan arkitektura trabak kentzeko beharrezkoak diren obrak egin dira.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Zuzendaritza Nagusiak –Abejeras kaleko 1. zenbakian kokatuta dago– aulki gurpildunak sartu ahal izateko arrapala bat dauka. Hala ere, jabeen erkidegoak ez du bertatik sartzen uzten, erkidegoarena den espazioa erabiltzen delako. Jarrera hori aldatuko balitz, espaloiaren eta erkidegoaren espazioaren arteko koska gutxitu egin beharko litzateke.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko apirilaren 2an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda

**Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna**

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du eraikin publikoetan arkitektura-trabak kentzeari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari dagokionez, hauxe adierazi behar da:

1999an obrak egin ziren Departamentuaren egoitza dagoen eraikinaren sarreran, Iruñeko San Ignazio etorbideko 3. zenbakian. Igogailu mekaniko bat instalatu zen: dauden eskailerak gaindituz, minusbaliotasunak dauzkaten herritarrak bulegoetara irits daitezela ahalbidetzen du. Halaber, 2000n obrak egin ziren eraikin horretan bertan, eta beheko solairuan minusbaliatuentzako komunak jarri ziren.

– Garraio Zerbitzuak Iruñeko Yanguas y Miranda kaleko 5. zenbakian erabiltzen dituen lokaletan, aurki beheko solairuan obra batzuk egiteko asmoa dago. Horien proiektuan sarbidea errazteko behar den soluzio teknikoa jasoko da.

– Burlatako Industrialdeko eraikinean, Iturrondo kaleko 1. zenbakian, Telekomunikazio Zerbitzua eta Bide eta Eraikuntza Zerbitzuko Laborategia kokaturik daude. Bertan, eraikineko igogailuetara oztoporik gabe irits daiteke.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluak ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko martxoaren 28an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

**Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna**

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du eraikin publikoetan arkitektura-trabak kentzeari buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuaren bulego nagusiak Iruñeko Tutera kaleko 20. zenbakian kokatuta daude. Haietara sartzeko, kalearen eta eraikineko beheko solairuaren artean dagoen koska gainditzen duen eskailera-multzo bat soilik erabiltzen da.

Departamentuak proiektu bat dauka oztopo hori arrapala baten bidez kentzeko, Francisco Monente Zabalza arkitektoak egina eta Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoak ikus-onetsia, 2000ko urtarrilaren 19an. Iruñeko Udalak obra-lizentzia emana dauka.

2000ko otsailaren 24an Tutera kaleko 20. zenbakiko jabeen erkidegoari baimena eskatu zitzaion sartzeko arrapala egiteko. Baina baimen hori ukatu zuten, eraikin horren behealdeko lokaletako merkatariei kalte eginen zitzaiela esanez. Jabeen erkidegoarekin bilera egin da, eta beste alternatiba batzuk eskain ditzaten zain gaude.

Tafallako eskualde-bulegoan sartzeko arrapala txiki bat egin zen.

Urdazubiko Monasterioaren kaleko 28. zenbakian kokaturik dauden Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuaren bulegoen jabea Nafarroako Kutxa da.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko martxoaren 26an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

**Industria eta teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariaren erantzuna**

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du eraikin publikoetan arkitektura-trabak kentzeari buruz. Hona Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariaren erantzuna:

Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuaren eraikin zentrala minusbaliatuak bertan sartu ahal izan daitezen guztiz egokituta dago; baita Arcadio Mª Larraona kaleko Nafarroako Enplegu Zerbitzuko bulegoak ere. Halaber, bai Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bai Turismo Zerbitzuaren ardurapeko kanpo bulego batzuk egokitzeko aurretiazko azterlanak egiten ari dira.

Iruñean, 2001eko martxoaren 29an

Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagagoitia Ripoll

# Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak kontratatutako obra eta zerbitzuei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Jorge Mori Igoa jaunak Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak kontratatutako obra eta zerbitzuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko maiatzaren 10eko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Jorge Mori jaunak galdera egin du Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak kontratatutako obra eta zerbitzuei buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1996ko urriaren 1etik 2000ko abenduaren 31ra bitarte zenbat obra eta zerbitzu kontratatu dituzten departamentu horrek eta haren sozietate instrumentalek, honakoak zehaztuta:

– adjudikaturiko obra edo zerbitzuaren pertsona fisiko edo juridiko adjudikazio-hartzailea, kontratazio mota adierazita.

– obra edo zerbitzu bakoitzaren lizitazio, adjudikazio eta exekuzio prezioak.

Eskatutakoa dela eta, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak adjudikatu eta likidaturiko kontratuei buruzko 1996tik 2000ra bitarteko oroit-idazkiak bidaltzen dizkizut.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 28an.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

(Oharra: Aipatu dokumentazioa foru parlamentarien eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan.)

# Espetxe berriak izanen duen kokalekuari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak espetxe berriak izanen duen kokalekuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko maiatzaren 15eko 51. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak galdera egin du espetxe berriak izanen duen kokalekuari buruz. Nafarroako Parlamentuko 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoa betez, hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

1. Ados jarri al dira dagoeneko Estatuko eta Foru Komunitateko administrazioak espetxe berriak izan dezakeen kokapenaren gaian? Baiezkoan, adierazi zein den toki hori.

Oraindik ere ez dugu akordiorik lortu.

2. Zenbat aukera dute bi administrazioek esku artean espetxea kokatzeko? Adierazi guztiak.

Barne Ministerioaren oinarrizko eskakizunei jarraituz Nafarroako lurraldean egiten ari den azterketak eskaintzen dituen aukera guztiak (150.000 metro koadroko lurzatia, zerbitzu egokiak eta nahikoak emateko aukera ematen duena, menderamen orografikorik gabea eta abar).

3. Bat baino gehiago baldin badago, zein dira lehentasunezkoak?

Aurreko baldintzak bete eta geroan espetxe baten funtzionamendu onena bideratzen dutenak; beraz, Iruñeko eragin eremuan beharko du egon.

4. Egin al ditu Nafarroako Gobernuak bilerak udalekin gaiaz mintzatzeko?

Bai, bilera bat egin du 2001eko maiatzaren 11n Iltzarbe ibarreko udal ordezkariekin.

5. Zein udalekin egin dira bilerak?

Gares, Obanos, Ukar, Adios, Eneritz, Añorbe, Uterga, Muruzabal eta Biurrun.

6. Zer iritzi adierazi dute udal horiek?

Ez dute nahi espetxea haien mugapeetan jartzea.

7. Noizko dago aurreikusirik behin betikoz zehaztea espetxe berriaren kokapena?

Datozen hiru hilabeteetan.

Hori guztia jakinarazi dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2001eko ekainaren 1ean

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

# Zainzurien inportazioaren kontrolei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak zainzurien inportazioaren kontrolei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko maiatzaren 22ko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du zainzurien inportazioaren kontrolei buruz. Hona kontseilariaren erantzuna:

1. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak beste herrialde batzuetatik datozen zainzurien esportazioen etiketak kontrolatzen ditu.

2. Osasun Departamentuak Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari jakinarazten dio beste herrialde batzuetatik zainzuriak inportatzen direnean. Ikuskatzaileek inportazio-zentroa bisitatu eta produktuen loteak eta haien etiketak egiaztatzen ditu.

3. Era koordinatuan, Osasun Departamentuak osasun alderdiak eta Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak etiketak kontrolatzen dituzte.

4. Nekazaritza erakundeei ez dagokie produktuen inportazioei buruzko kontrol ofizialetan parte hartzea.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 30ean.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

# Nekazaritzako batzar sektorialean Nafarroari esleitutako kopuruei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Nekazaritzako batzar sektorialean Nafarroari esleitutako kopuruei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko maiatzaren 22ko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du Nekazaritzako batzar sektorialean Nafarroari esleitutako kopuruei buruz. Hona erantzuna:

Nafarroak nekazaritza eta abeltzaintzako eskumen guztiak bereganatu zituen. Daukan araubide berezia dela eta, ez du inolako kopururik jasotzen joan den martxoaren 6an egindako batzorde sektorialaren gai zerrendako 2. puntuan adierazitako gaiengatik.

Kopuru horiek autonomia erkidegoen artean nola banatu ziren jakiteko, kopuru horiek hartu zituzten autonomia erkidegoei edo Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioari galdetu behar.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 30ean

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

# Gobernuko eta Foru Komunitateko administrazioko goi karguen interesen eta jardueren erregistroari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Gobernuko eta Foru Komunitateko administrazioko goi karguen interesen eta jardueren erregistroari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko maiatzaren 22ko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du Gobernuko eta Foru Komunitateko administrazioko goi karguen interesen eta jardueren erregistroari buruz. Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak txosten bat erantsi dizu. Funtzio Publikoko zuzendari nagusiak egin du (bera baita aipatu erregistroa kudeatzen duen organoa), eta gogorarazi behar da independentzia osoa duela hura kudeatzeko, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legeko 8.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko ekainaren 6an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

(Oharra: Aipatu txostena foru parlamentarien eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

# Hezkuntza eta Kultura Departamentuak kontratatutako obra eta zerbitzuei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Jorge Mori Igoa jaunak Hezkuntza eta Kultura Departamentuak kontratatutako obra eta zerbitzuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko maiatzaren 10eko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Jorge Mori jaunak galdera egin du Hezkuntza eta Kultura Departamentuak 1996ko urriaren 1etik 2000ko abenduaren 31ra bitarte kontratatutako obra eta zerbitzuei buruz. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

0/1 KONTRATU MOTA - OBRA KONTRATUA

| | | Adjudikatzeko sistema | | | Prezioak: | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Adjudikazio hartzailea | Kontratuaren xedea | Tramitea | Prozedura | Modua | Aurrekontua | Adjudikazioa eta exekuzioa | Adjudikazioaren data |
| Tafonca S.L. | Tafallako LHIko berogailuak berritzea | Presakoa | Irekia | Lehiaketa | 11.112.517 | 9.596.375 | 96/10/8 |
| Cador Iberia S.A. | NUPeko liburutegian guneak batera erabiltzea | Arrunta | Negoziatua | | 4.708.182 | 4.708.182 | 96/10/30 |
| Asfaltos de Biurrun S.A. | Caparrosoko IPn oztopo arkitektonikoak kentzea | Arrunta | Irekia | Enkantea | 6.583.411 | 6.577.419 | 96/10/30 |
| Montajes eléctricos Pamplona | Altsasuko LHIko lantegietako instalazio elektrikoa | Arrunta | Negoziatua | | 2.684.581 | 2.314.294 | 96/11/6 |
| Fco. Martínez Moreno | Iruñeko Iturrama BHIko zenbait eraberritze lan | Arrunta | Negoziatua | | 4.978.514 | 4.282.458 | 96/11/30 |
| Ginés Navarro Construc.S.A. | San Adriango DBHIn espaloiei zoladura ematea | Arrunta | Negoziatua | | 4.999.062 | 4.693.058 | 96/11/15 |
| Albarrada S.A. | Corellako LHIko lantegietako obra osagarriak | Arrunta | Negoziatua | | 1.411.389 | 1.318.237 | 96/11/28 |
| S.A. Navarra de Construcciones | Altsasuko BIko saneamendua eta teilatu hegala konpontzea | Arrunta | Negoziatua | | 1.984.325 | 1.517.425 | 96/11/11 |
| Chial Construcciones S.A. | Tuterako “T. Monreal” IPko zenbait konponketa | Arrunta | Negoziatua | | 3.284.780 | 2.982.867 | 96/12/20 |
| Construcciones Larráyoz-Arregui | Leitzako egoitzaren teilatua aldatzea | Arrunta | Negoziatua | | 4.918.182 | 4.887.367 | 96/12/20 |
| Gregorio Sagastibelza | Leitzako IPko aldaketak | Arrunta | Negoziatua | | 4.992.292 | 4.887.454 | 96/12/17 |
| Construcciones Martínez Sánchez | Lizarrako BHIko zenbait eraberritze | Presakoa | Irekia | Enkantea | 30.582.517 | 26.367.076 | 96/12/20 |
| Promel S.A. | NUPeko aretoen klimatizazioa | Arrunta | Negoziatua | | 1.322.377 | 1.054.273 | 96/12/17 |

| Adjudikazio hartzailea | Kontratuaren xedea | Adjudikatzeko sistema: Tramitea | Prozedura | Modua | Prezioak: Aurrekontua | Adjudikazioa eta exekuzioa | Adjudikazio-aren data |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Construcciones Lohitzune S.L. | Leitzako BHIko teilatua eraberritzea | Arrunta | Negoziatua | | 4.177.393 | 3.654.000 | 96/12/31 |
| Construcciones Ochoa y Ruiz S.L. | Corellako BHIko taberna jartzeko obrak | Arrunta | Negoziatua | | 3.068.021 | 2.984.347 | 96/12/31 |
| Construcciones ACR S.A. | DBH eta BBBrako ikastetxe berria eraikitzea Zizurren | Arrunta | Irekia | Lehiaketa | 363.656.601 | 303.902.041 | 97/1/27 |
| Construcciones Echarte y Cia S.L. | Berako BHIko itxiturak eta sarbideak konpontzea | Arrunta | Irekia | Lehiaketa | 11.923.691 | 11.474.451 | 97/6/13 |
| Construcciones Martínez Sánchez | Azkoiengo BHIn propano biltontzia paratzea | Arrunta | Negoziatua | | 1.854.109 | 1.835.568 | 97/3/14 |
| Nuevo sistema modular S.L. | Mendillorri-Burlatarako modulu aurrefab. eraman eta mun. | Arrunta | Negoziatua | | 2.680.312 | 2.680.312 | 97/3/25 |
| Construcciones Lohitzune S.L. | Leitzako BHIko estalkia eraberritzea, 2. fasea | Arrunta | Negoziatua | | 2.220.843 | 2.099.600 | 97/3/25 |
| Construcciones Lamberto S.A. | Jantokiak eta kafetegia eraikitzea NUPen | Arrunta | Irekia | Lehiaketa | 270.000.000 | 244.922.398 | 97/3/25 |
| Construcciones Garnica y Cortés | San Adriango DBHI handitzea | Presakoa | Irekia | Lehiaketa | 62.235.785 | 56.706.301 | 97/3/25 |
| Nuevo sistema modular S.L. | Instalazioetarako moduluak muntatzea NUPen | Presakoa | Irekia | Lehiaketa | 12.500.000 | 12.334.864 | 97/3/25 |
| Obenasa | NUPeko “El Sario” eraikineko aparkalekua konpontzea | Arrunta | Negoziatua | | 3.848.517 | 3.752.304 | 97/4/1 |
| La Guareña S.A. | Altsasuko BHIko kiroldegiko pista eta urbanizazioa | Arrunta | Irekia | Lehiaketa | 72.794.588 | 65.129.821 | 97/4/18 |
| Cruz Miguel Suberviola | Zudairiko IPko komunak birmoldatu eta gimnasioa margotzea | Arrunta | Negoziatua | | 4.647.388 | 4.275.618 | 97/4/25 |
| José I. Goñi Labiano | Hezkuntza Departamentuko komunak eraberritzea | Arrunta | Negoziatua | | 4.356.800 | 3.855.768 | 97/4/25 |
| Madomic S.L. | Doneztebeko BHI handitu eta berritzea | Presakoa | Irekia | Lehiaketa | 54.210.999 | 47.922.523 | 97/5/19 |
| Cerramientos Hernández S.L. | Iruñeko “P. Moret” BHIko ekitaldi aretoko estalkia birmoldatzea | Arrunta | Negoziatua | | 2.911.548 | 2.398.555 | 97/6/17 |
| Promel S.A. | NUPeko Agronomoen laborategiak klimatizatzea | Arrunta | Negoziatua | | 1.682.000 | 1.320.942 | 97/6/13 |
| Coresal | Otsagiko Parrokiako Erretaula Nagusia zaharberritzea | Arrunta | Irekia | Lehiaketa | 14.000.000 | 13.800.000 | 97/6/4 |
| Ezponda Martínez | Iruñeko “Plaza de la Cruz” BHIko zenbait ikasgela margotzea | Arrunta | Negoziatua | | 2.255.953 | 1.640.240 | 97/6/19 |
| Estudal S.L. | Erronkariko IPko teilatupea eraberritzea | Arrunta | Negoziatua | | 4.375.500 | 4.069.215 | 97/6/26 |
| Estudal S.L. | Dantza Eskolako ikasgelak egokitzea Iruñeko “Eunate” ikastetxean | Arrunta | Negoziatua | | 3.300.352 | 3.069.360 | 97/6/26 |
| Albarrada S.A. | Lodosako BHIko sarbideetan ormigoizko pabiloia egitea | Arrunta | Negoziatua | | 4.795.527 | 4.268.107 | 97/7/21 |
| Adisa de Calefacción S.L. | Doneztebeko BHIn berokuntza sistema zabaltzea | Arrunta | Irekia | Lehiaketa | 7.050.617 | 6.713.911 | 97/6/23 |

| | | Adjudikatzeko sistema | | | Prezioak: | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Adjudikazio hartzailea | Kontratuaren xedea | Tramitea | Prozedura | Modua | Aurrekontua | Adjudikazioa eta exekuzioa | Adjudikazio-aren data |
| Aldesa Construcciones S.A. | Iruñeko “Basoko” BHIko kiroldegia, estalkia eta eraberritzea | Arrunta | Irekia | Lehiaketa | 159.757.505 | 146.465.681 | 97/6/30 |
| Construcciones Martínez Sánchez | Lizarrako BHI eraberritzea, modulua eta zenbait zuzenketa | Arrunta | Irekia | Lehiaketa | 82.670.090 | 73.620.234 | 97/6/19 |
| Distribuciones Renoven S.A.L. | Iruñeko “Padre Moret” BHIko kanpoko zureria eraberritzea | Arrunta | Irekia | Lehiaketa | 15.563.047 | 13.339.218 | 97/7/15 |
| Nuevo sistema modular S.L. | Tafallako BHIko moduluak paratu eta muntatzea | Presakoa | Irekia | Lehiaketa | 57.500.000 | 57.430.000 | 97/7/15 |
| Navascués Obras y Puentes S.L. | Iruñeko “J.C. Baroja” BHIko kirol pistaren egitura metalikoa | Presakoa | Irekia | Lehiaketa | 22.095.744 | 19.775.691 | 97/8/1 |
| Lamberto S.A. | Iruñeko “Padre Moret” BHIko ikasgelak eta komunak | Presakoa | Irekia | Lehiaketa | 25.082.122 | 22.476.090 | 97/8/1 |
| La Guareña S.A. | NUPeko “El Sario” eraikineko eranskinak zaharberritzea | Arrunta | Irekia | Lehiaketa | 37.471.516 | 33.240.995 | 97/7/15 |
| Construcciones Martínez Sánchez | Tuterako “Benjamín de T.” BHI barnetik eraberritzea | Arrunta | Irekia | Lehiaketa | 26.971.332 | 25.890.000 | 97/7/15 |
| Pavim. Navarra/ Const. Torrecilla | Departamentuaren kanpoko urbanizazioa | Arrunta | Negoziatua | | 4.150.608 | 4.132.210 | 97/8/1 |
| Instalaciones Ectron S.L. | “V. del Camino” BHIren instalazio elektrikoa birmoldatzea | Arrunta | Negoziatua | | 790.000 | 690.722 | 97/7/15 |
| Procona | Barañaingo BHIko lehoiak eta lehioburuak eustea | Arrunta | Negoziatua | | 4.137.668 | 3.033.116 | 97/7/21 |
| Albarrada S.A. | Tuterako “Benjamín de T.” BHIn modulu aurrefab. zimenduak | Arrunta | Negoziatua | | 3.624.131 | 3.595.183 | 97/8/28 |
| Construcciones Gayal S.L. | Tafallako BHIko munta txikiko lanak | Arrunta | Negoziatua | | 4.837.380 | 4.837.380 | 97/8/1 |
| Arbeloa Construcciones S.L. | Iruñeko Arte Eskolako lantegietako obrak | Presakoa | Irekia | Lehiaketa | 31.616.011 | 30.279.234 | 97/9/4 |
| Montajes eléctricos Pamplona | Altsasuko BHIko soldadura geletarako instalazio elektrikoa | Arrunta | Negoziatua | | 2.368.147 | 2.170.802 | 97/9/17 |
| Carpinteria Pedro Ariz S.A. | NUPeko Campuseko eraikinetarako txapa galvanizatuzko isurkia | Arrunta | Negoziatua | | 1.890.792 | 1.795.001 | 97/9/12 |
| Lamberto S.A. | Iruñeko “Nav. Villoslada/Biurdana” BHI zaharberritzea | Arrunta | Irekia | Lehiaketa | 10.293.327 | 9.392.922 | 97/9/30 |
| Aislatec S.L. | “García Galdeano” IPko dantza ikasgeletako zoru berezia | Arrunta | Negoziatua | | 4.926.288 | 4.227.591 | 97/9/4 |
| Obenasa | NUPeko “El Sario” eraikineko aparkalekua konpontzea | Arrunta | Irekia | Lehiaketa | 51.694.928 | 40.100.664 | 97/9/4 |
| Const. Luciano Elcarte S.L. | Zenbait jarduketa NUPeko Ing. Agr. praktiketarako finketan | Arrunta | Irekia | Enkantea | 13.608.128 | 9.118.134 | 97/9/4 |
| Estudal S.L. | Zenbait “García Galdeano” IPko dantza ikasgeletan | Arrunta | Negoziatua | | 2.886.695 | 2.828.906 | 97/9/2 |
| Comidian S.A.L. | Zenbait eraberritze Tafallako ETIn | Arrunta | Negoziatua | | 2.225.543 | 2.145.450 | 97/9/2 |

| Adjudikazio hartzailea | Kontratuaren xedea | Adjudikatzeko sistema: Tramitea | Prozedura | Modua | Prezioak: Aurrekontua | Adjudikazioa eta exekuzioa | Adjudikazio-aren data |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Fontaneria y Caef. ESAN S.L. | NUPeko Campusean uraren sare orokorra aldatzea | Arrunta | Negoziatua | | 4.983.505 | 4.881.396 | 97/9/12 |
| Estudal S.L. | Iruñeko “Eunate” IP eraberritzea “Eunate” BHIrako | Arrunta | Negoziatua | | 4.444.071 | 4.403.343 | 97/9/11 |
| Construcciones Martínez Sánchez | Iruñeko “Donapea” BHIren barneko urb. eta beste lan batzuk | Arrunta | Negoziatua | | 11.760.631 | 11.040.880 | 97/9/29 |
| José Ig. Goñi Labiano | Iruñeko “Nav. Villoslada” BHIren estalkia berritzea eta beste lan batzuk | Presakoa | Irekia | Enkantea | 7.493.012 | 7.065.969 | 97/10/16 |
| Adrián Andueza Luis y otro | Iruñeko “Eunate” BHIko pertsianak aldatzea | Arrunta | Negoziatua | | 4.222.388 | 3.836.767 | 97/10/20 |
| Albarrada S.A. | Corellako Arte Eskolan ikasgelak egokitzea | Arrunta | Negoziatua | | 2.661.115 | 2.453.548 | 97/10/13 |
| Tafonca S.L. | Tafallako BHI handituan berogailuak paratzea | Arrunta | Negoziatua | | 4.951.769 | 3.998.553 | 97/9/2 |
| Promel S.A. | “Benj. de Tudela” BHIn goi tentsiokoaren ordez C.D.T. linea jartzea | Arrunta | Negoziatua | | 4.187.250 | 3.838.432 | 97/10/7 |
| Albarrada S.A. | Tuterako “Lourdes” IPko ileapaingintzako ikasgelak berritzea | Arrunta | Negoziatua | | 4.147.329 | 3.857.016 | 97/10/7 |
| Ezponda Martínez | Iruñeko “José Mª Iribarren” IPko ikasgelak margotzea | Arrunta | Negoziatua | | 2.763.218 | 1.638.931 | 97/10/13 |
| Const. Luciano Elcarte S.L. | NUPeko kirol instalazioetan urbanizazio lanak | Arrunta | Negoziatua | | 4.965.697 | 4.872.000 | 97/10/7 |
| Cristalerís FOR S.L. | NUPeko eraikinean sabaiko luzernarioak konpontzea | Arrunta | Negoziatua | | 2.590.976 | 1.823.056 | 97/10/17 |
| Estudal S.L. | Iruñeko “Eunate” BHIrako “Eunate” IPko kanpoaldeko jarduketak | Arrunta | Negoziatua | | 4.964.868 | 4.909.800 | 97/10/17 |
| Asfaltos de Biurrun S.A. | Cintruenigoko DBHIko patioan zenbait lan eta zoladura | Presakoa | Irekia | Lehiaketa | 11.569.222 | 10.256.116 | 97/10/17 |
| Albarrada S.A. | Tuterako ETIn 2 ikasgela gehiago egitea | Arrunta | Irekia | Lehiaketa | 7.144.786 | 7.041.187 | 97/11/14 |
| Madomic S.L. | Cortesko IPko eskolazainaren bulegoa berritzea | Arrunta | Negoziatua | | 2.163.733 | 2.159.000 | 97/10/13 |
| Incamasa | Katedraleko aulkiak zaharberritu eta museoan jartzea | Arrunta | Irekia | Lehiaketa | 2.000.000 | 1.996.620 | 97/7/18 |
| Aislatec S.L. | Dantza eskolarako zenbait jarduketa “García G.” IPn | Arrunta | Negoziatua | | 4.964.626 | 4.691.572 | 97/11/4 |
| Orona S. | NUPeko “El Sario” eraikinean igogailu hidraulikoa paratzea | Arrunta | Negoziatua | | 4.652.760 | 4.431.200 | 97/10/28 |
| Construcciones Martínez Sánchez | Barasoaingo IP berria | Arrunta | Irekia | Lehiaketa | 73.285.852 | 66.353.010 | 97/11/12 |
| Const. Luciano Elcarte S.L. | NUPeko Ing. Agr. praktiketako finketan zenbait lan | Presakoa | Irekia | Enkantea | 40.003.414 | 27.882.379 | 97/11/21 |
| Servimán Gascal S.L. | Iruñeko “Adap. Social” BHI berriko berokuntza sistema berritzea | Arrunta | Negoziatua | | 1.487.126 | 1.014.944 | 97/11/7 |
| José Luis Vidán Lizari | NUPeko El Sario margotzea | Arrunta | Negoziatua | | 4.959.356 | 4.928.793 | 97/11/27 |

| | | Adjudikatzeko sistema | | | Prezioak: | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Adjudikazio hartzailea | Kontratuaren xedea | Tramitea | Prozedura | Modua | Aurrekontua | Adjudikazioa eta exekuzioa | Adjudikazio-aren data |
| Const. Etxarte y Cia S.A. | Berako BHIko aurrealdea eta zoladura konpontzea | Arrunta | Negoziatua | | 4.991.866 | 4.978.393 | 97/11/28 |
| Igensa, S.L. | Altsasuko BHIra gas naturalaren hodia eramatea | Arrunta | Negoziatua | | 2.315.496 | 1.813.580 | 97/11/28 |
| Albarrada, S.A. | Corellako Alhama BHI berritu eta egokitzea | Arrunta | Negoziatua | | 3.858.081 | 3.690.339 | 97/11/28 |
| Albarrada, S.A. | Corellako Arte Eskolako konponketak | Arrunta | Negoziatua | | 3.672.067 | 3.512.412 | 97/11/28 |
| José Ignacio Goñi Labiano | Uharteko BHIko jantokia eta komunak eraberritzea | Arrunta | Negoziatua | | 2.309.485 | 2.066.989 | 97/11/28 |
| Const.Lamberto, S.A. | Mendillorriko IPko zenbait konponketa | Arrunta | Negoziatua | | 4.904.588 | 4.556.991 | 97/11/28 |
| Navascués Obras y Puentes, S.L. | Iruñeko “J.C. Baroja” BHIko euri-uren saneamendu sarea | Arrunta | Negoziatua | | 4.958.336 | 4.462.501 | 97/11/28 |
| Cerrameintos Alzairu S:L. | Iruñeko Iturrama BHIren estalkiaren konponketa | Arrunta | Negoziatua | | 4.947.779 | 3.879.915 | 97/11/28 |
| Montajes Eléctricos Feler, S.L. | NUPeko Errektoregoko instalazio elektrikoa | Arrunta | Negoziatua | | 4.985.364 | 4.152.809 | 97/11/28 |
| Construcciones Lamberto, S.A. | NUPeko El Sario eraikinean guneak egokitzea | Arrunta | Negoziatua | | 1.276.479 | 1.109.982 | 97/11/28 |
| Construcciones Lamberto, S.A. | Santo Domingo elizako pareta garbitu eta zaharberritzea | Arrunta | Negoziatua | | 4.990.801 | 4.246.055 | 97/11/28 |
| Construc.Martínez Sánchez, S.L. | Azkoiengo BHIko zenbait obra | Arrunta | Negoziatua | | 4.898.032 | 4.847.500 | 97/11/28 |
| Luis Adrián-Martín Barbarin | Doneztebeko DBHIko pertsianak | Arrunta | Negoziatua | | 2.438.436 | 1.875.720 | 97/11/28 |
| Carpintería Pedro Ariz, S.A. | Tafallako “Sancho III. El Mayor” inst larrialdietako eskailera | Arrunta | Negoziatua | | 3.469.851 | 3.367.741 | 97/11/28 |
| INNOMAT, S.L. | Tafallako ETIko kiroldegiko zoladura berezia | Arrunta | Negoziatua | | 4.910.534 | 4.402.294 | 97/11/28 |
| Marcos Ciérvide Liberal | Tafallako “Sancho III. El Mayor” inst. kirol pistetako zorua | Arrunta | Negoziatua | | 4.929.072 | 2.642.175 | 97/11/28 |
| Albarrada, S.A. | Benjamín de Tudela BHI eraberritzea | Arrunta | Negoziatua | | 4.947.740 | 4.732.620 | 97/11/28 |
| Orona, S:Coop. Ltda. | Azkoiengo DBHIn minusbaliatuentzako igogailua paratzea | Arrunta | Negoziatua | | 4.300.000 | 2.929.000 | 97/11/28 |
| Asfaltos de Biurrun, S.A. | Benjamín de Tudela BHIko sarbideetan zoladura konpontzea | Arrunta | Negoziatua | | 4.999.362 | 4.882.809 | 97/12/4 |
| Chial Construc-ciones, S.L. | Tuterako Torre Monreal Hezkuntza Bereziko IPko patioa | Arrunta | Negoziatua | | 4.610.179 | 4.570.436 | 97/12/4 |
| Distribuciones Renoven, S.A.L. | Burlatako Askatasuna BHIko zureria aldatzea | Arrunta | Negoziatua | | 4.575.040 | 4.262.991 | 97/12/10 |
| Const.Martínez Sánchez, S.L. | Cintruenigoko DBHIko itxiturak konpontzea | Arrunta | Negoziatua | | 4.995.990 | 4.940.000 | 97/12/10 |
| Imanol Ezponda Martínez | Leitzako BHI margotzea | Arrunta | Negoziatua | | 4.354.680 | 3.205.045 | 97/12/15 |
| Albarrada, S.A. | Lodosako Pablo Sarasate BHIko itxitura berritzea | Arrunta | Negoziatua | | 2.015.077 | 1.778.631 | 97/12/15 |

| Adjudikazio hartzailea | Kontratuaren xedea | Adjudikatzeko sistema — Tramitea | Prozedura | Modua | Prezioak: Aurrekontua | Adjudikazioa eta exekuzioa | Adjudikazioaren data |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Francisco Martínez | Burlatako Hilarión Eslava IPko berritzeak | Arrunta | Negoziatua | | 1.582.293 | 1.382.870 | 97/12/16 |
| Nashitel, S.L. | Burlatako Ibaialde BHIn ke-erauzgailuak konpontzea | Arrunta | Negoziatua | | 3.300.000 | 3.000.000 | 97/12/16 |
| Juan José Ayucar Igal | Zarrakazteluko DBHIko konponketak | Arrunta | Negoziatua | | 800.000 | 733.120 | 97/12/18 |
| PROIND, S.L. | Iruñeko “Agroforestal” BHI margotzea | Arrunta | Negoziatua | | 4.979.974 | 4.047.625 | 97/12/19 |
| Navascués Obras y Puentes, S.L. | Azkoiengo DBHI berritzea | Arrunta | Negoziatua | | 4.999.113 | 4.649.174 | 97/12/19 |
| La Guareña, S.A. | Iruñeko Basoko BHIko kiroldegia, patioa eta barnekoa | Arrunta | Negoziatua | | 143.161.218 | 138.079.858 | 97/12/19 |
| Tudeco, S.A. | Barañaingo BHIn zenbait konponketa | Arrunta | Negoziatua | | 3.965.358 | 3.685.358 | 97/12/24 |
| Chial Construcciones, S.L. | Tuterako ETI BHIko aurrealde nagusia konpontzea | Arrunta | Negoziatua | | 1.923.984 | 1.822.600 | 97/12/29 |
| Fontanería Gaztelu S.C.L. | Leitzako BHIko berokuntzako galdara | Arrunta | Negoziatua | | 1.000.000 | 785.385 | 98/2/26 |
| Const. Ochoa y Ruiz, S.L. | Corellako Alhama BHIn oztopo arkitektonikoak kentzea | Arrunta | Negoziatua | | 1.914.442 | 1.610.054 | 98/3/3 |
| UTE Dragados y TECSA | NUPeko kiroldegia-pilotalekua eraikitzea | Arrunta | Negoziatua | | 449.897.452 | 389.341.255 | 98/3/9 |
| Com. Soldadura Sutegi, S.L. | Elizondoko BHIn soldadurako gas-erauzgailuak paratzea | Arrunta | Negoziatua | | 3.812.804 | 3.496.749 | 98/3/11 |
| Promel S.A. | Elizondoko Lekarotz BHIko instalazio elektrikoa | Arrunta | Negoziatua | | 4.513.584 | 3.699.122 | 98/3/17 |
| Const. Mariezcurrena S.L. | Oronozko IP eraikitzea | Presakoa | Irekia | | 43.296.017 | 41.455.936 | 98/3/31 |
| Electricidad Bat-Vol S.L. | Iruñeko Arte Eskolako instalazio elektrikoa | Arrunta | Negoziatua | | 2.422.817 | 2.157.600 | 98/4/1 |
| Modesto Gracia Lorza | Departamentuko biltegian artxiboko zoruaren tratamendua | Arrunta | Negoziatua | | 927.884 | 805.794 | 98/4/2 |
| Carpintería Hnos. Astiz, S.I. | Leitzako Amazabal BHIko barne zureria | Arrunta | Negoziatua | | 4.256.654 | 3.375.600 | 98/5/28 |
| Construcciones Lohitzune S.L. | Leitzako BHIko aurreko berritzea | Arrunta | Negoziatua | | 4.584.112 | 4.529.920 | 98/6/3 |
| Const. L. Elcarte S.L. | Tafallako “Sancho III el Mayor” BHIko patioa urbanizatzea | Presakoa | Irekia | | 22.934.680 | 19.471.573 | 98/6/16 |
| Construcciones Ecay S.L. | Mendillorriko IPko modulu aurrefabrikatua eramatea | Arrunta | Negoziatua | | 3.871.001 | 3.514.124 | 98/6/16 |
| Electricidad Navesa | Larraintzarko IPko instalazio elektrikoa | Arrunta | Negoziatua | | 1.899.314 | 1.431.368 | 98/6/16 |
| Arbeloa Construcciones S.L. | “Padre Moret” BHIko kanpoko zureria zaharberritzea | Arrunta | Irekia | Lehiaketa | 49.895.299 | 42.281.859 | 98/6/16 |
| Imanol Ezponda Martínez | Larraintzarko IP margotzea | Arrunta | Negoziatua | | 4.901.151 | 3.584.691 | 98/7/14 |
| Mugarza I ngenieros S.L. | Barañaingo BHIn igogailua paratzea | Arrunta | Negoziatua | | 4.826.215 | 4.429.971 | 98/7/14 |

| Adjudikazio hartzailea | Adjudikatzeko sistema<br>Kontratuaren xedea | Prezioak:<br>Tramitea | Prozedura | Modua | Aurrekontua | Adjudikazioa eta exekuzioa | Adjudikazio-aren data |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Construcciones Martínez Sánchez | San Adriango BHI eta LHko eraikinak | Presakoa | Irekia | Lehiaketa | 298.287.040 | 281.702.303 | 98/7/21 |
| Albarrada, S.A. | Tafallako ETI berritzea | Arrunta | Irekia | Lehiaketa | 20.971.300 | 20.614.788 | 98/7/23 |
| José Ig. Goñi Labiano | Azkoiengo DBHIko aldagelak eta beste | Arrunta | Negoziatua | | 8.009.810 | 7.689.418 | 98/7/23 |
| José Ig. Goñi Labiano | Programazio eta Ikerketa Zerbitzua berritzea | Arrunta | Negoziatua | | 2.476.364 | 2.117.291 | 98/7/23 |
| Montajes Eléctricos Noi, S.A.L. | NUPeko “El Sario” eraikineko transformazio zentroa | Arrunta | Negoziatua | | 4.970.354 | 4.398.763 | 98/7/23 |
| Arbeloa Construc-ciones S.L. | Iruñeko Arte Eskolako 2 eta 3. faseak | Presakoa | Irekia | Lehiaketa | 48.289.676 | 46.696.307 | 98/7/23 |
| Construcciones Lamberto, S.A. | Iruñeko “Agroforestal” BHIko teilatua berritzea | Presakoa | Irekia | Lehiaketa | 30.474.433 | 29.407.828 | 98/7/23 |
| Montajes eléctricos Pamplona S.A. | “P. Moret” BHIko moduluak Mendillorriko IPra eramatea | Presakoa | Irekia | Lehiaketa | 11.390.209 | 10.182.535 | 98/7/23 |
| C. Y Excavaciones Ezquerro S.L. | Mendaviako maisu-maistren etxea zena berritzea | Arrunta | Irekia | Lehiaketa | 5.807.728 | 5.238.889 | 98/7/23 |
| Cogesar S.L. | Lizarrako BHIko jantoki handia | Presakoa | Irekia | Lehiaketa | 36.704.839 | 35.432.332 | 98/7/23 |
| Chial Construc-ciones, S.L. | Tuterako ETIrako sarbideen zoladura konpontzea | Arrunta | Negoziatua | | 4.847.536 | 4.847.534 | 98/7/29 |
| Construcciones Lamberto, S.A. | NUPeko “El Sario” eraikineko egokitzapen eta apainketa | Presakoa | Irekia | Lehiaketa | 43.609.606 | 41.647.174 | 98/7/5 |
| Construcciones Lamberto, S.A. | Iruñeko “N. Villoslada” BHIko aldagelak berritzea | Arrunta | Irekia | Enkantea | 8.321.574 | 8.030.319 | 98/8/17 |
| INNOMAT, S.L. | Iruñeko “N. Villoslada” BHIko kiroldegiko zoladura | Arrunta | Irekia | Lehiaketa | 8.073.521 | 7.338.465 | 98/8/17 |
| Hnos. Toledo Escudero | San Adriango DBHIko ikasgelak egokitzea | Arrunta | Negoziatua | | 4.136.644 | 4.122.562 | 98/8/17 |
| Angel Jiménez Pascual | San Adriango DBHIko instalazio elektrikoa | Arrunta | Negoziatua | | 4.049.193 | 3.982.492 | 98/8/17 |
| Excavaciones Muniain y otros | Lodosako BHIko atletismo pista | Arrunta | Irekia | Lehiaketa | 10.187.916 | 8.984.584 | 98/8/17 |
| Promociones y Construc. Navarra | Burlatako “Ibaialde” BHI berritzea | Arrunta | Irekia | Lehiaketa | 33.320.046 | 31.839.617 | 98/8/17 |
| Navascués Obrasy Puentes, S.L. | Corellako Arte Eskolako estalkia | Arrunta | Negoziatua | | 16.354.280 | 16.354.280 | 98/8/17 |
| Estudal S.L. | Otsagiko DBHIko obrak | Arrunta | Negoziatua | | 2.651.883 | 2.410.802 | 98/8/26 |
| Const. Martínez Sánchez S.L. | Iruñeko “Virgen del Camino” BHIko itxitura | Arrunta | Negoziatua | | 15.084.018 | 15.084.018 | 98/8/31 |
| Chial Construc-ciones, S.L. | Tuterako “ETI” BHIko sarbideetako zoladura | Arrunta | Negoziatua | | 4.997.990 | 4.996.990 | 98/9/8 |
| Procona | Lekarozko BHIn zenbait jarduketa | Arrunta | Negoziatua | | 4.911.214 | 4.811.214 | 98/10/1 |
| Fontanería y Cale-fación ESAN S.L. | Iruñeko “Eunate” BHIko iturgintza lanak | Arrunta | Negoziatua | | 4.274.772 | 4.173.359 | 98/10/6 |
| José Antonio Goñi Labiano | Dantza Eskolako aldagelak (García Galdeano I.P.) | Arrunta | Negoziatua | | 4.989.872 | 4.241.390 | 98/11/2 |

| Adjudikazio hartzailea | Adjudikatzeko sistema<br>Kontratuaren xedea | Prezioak:<br>Tramitea | Prozedura | Modua | Aurrekontua | Adjudikazioa eta exekuzioa | Adjudikazio-aren data |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Artres S.L. | Uxueko Ama Birjinaren elizako zenbait jarduketa | Arrunta | Irekia | Lehiaketa | 10.000.000 | 99.960.920 | 98/11/16 |
| Artelán Restauración S.L. | Artaxoako San Saturninoren kontserbazio lanak | Arrunta | Irekia | Lehiaketa | 13.000.000 | 12.818.000 | 98/11/16 |
| Construcciones Lamberto, S.A. | Barañaingo BHIko oztopo arkitektonikoak | Arrunta | Negoziatua | | 2.407.419 | 2.233.089 | 98/11/16 |
| Const. Virgen del Olmo S.A. | Azagrako BHIko teilatupea | Arrunta | Negoziatua | | 4.086.078 | 3.891.800 | 98/11/16 |
| Montajes Eléctricos Noi, S.A.L. | NUPeko “El Sario” eraikineko instalazio elektrikoa | Arrunta | Negoziatua | | 9.869.238 | 7.737.483 | 98/11/16 |
| Aislatec S.L. | P. Sarasate kontserbatorioko isolamendu akustikoa | Arrunta | Negoziatua | | 4.196.210 | 4.061.931 | 98/11/16 |
| Aislatec S.L. | Iruñeko Arte Eskolako eskolazainaren etxebizitza | Arrunta | Negoziatua | | 1.740.854 | 1.681.665 | 98/11/16 |
| Renoven S.A.L. | Burlatako “Askatasuna” BHIko zureria | Arrunta | Negoziatua | | 4.980.381 | 4.889.901 | 98/11/23 |
| Estudal, S.L. | Iruñeko Iturrama BHI berritzea | Arrunta | Negoziatua | | 1.793.092 | 1.730.145 | 98/11/23 |
| Regenauto, S.L. | “Virgen del Camino” BHIko gas-erauzgailuak | Arrunta | Negoziatua | | 1.992.033 | 1.957.233 | 98/11/23 |
| Macrife, S.L. | Navarro Villoslada BHIko hesia paratzea | Arrunta | Negoziatua | | 3.913.289 | 2.745.256 | 98/11/23 |
| Fermín Valencia Sota | Plaza de la Cruz BHIko estalpeko itxitura | Arrunta | Negoziatua | | 4.977.670 | 3.793.780 | 98/11/23 |
| Instalad. Bercazabal | Azkoiengo BHIn berokuntza sistema paratzea | Arrunta | Negoziatua | | 2.770.563 | 2.518.694 | 98/11/23 |
| Cerramientos Hernández S.L. | Azkoiengo BHIko lantegiko estalkia | Arrunta | Negoziatua | | 13.076.588 | 12.336.403 | 98/11/23 |
| Navascués Obras y Puentes, S.L. | Tafallako BHIko estalkia berritzea | Arrunta | Negoziatua | | 8.436.554 | 8.225.640 | 98/11/23 |
| Arbeloa Construcciones S.L. | Iruñeko Arte Eskolako korridorea | Arrunta | Negoziatua | | 2.457.364 | 2.440.163 | 98/12/1 |
| Kaixo S.L. | Lekarozko BHIko errezelak paratzea | Arrunta | Negoziatua | | 4.986.012 | 3.803.740 | 98/12/2 |
| Cerrameintos Alzairu S:L. | Lekarozko BHIko estalkia | Arrunta | Negoziatua | | 2.382.391 | 2.382.391 | 98/12/2 |
| Imanol Ezponda Martínez | Larraintzarko BHI margotzea | Arrunta | Negoziatua | | 3.723.392 | 2.345.778 | 98/12/2 |
| Imanol Ezponda Martínez | Uharteko BHI margotzea | Arrunta | Negoziatua | | 1.552.638 | 1.133.426 | 98/12/2 |
| Albarrada, S.A. | Corellako BHIko barnealdearen urbanizazioa | Arrunta | Negoziatua | | 9.849.068 | 9.804.068 | 98/12/2 |
| Zosimo Zaratiegui S.L. | Burlatako “Ibaialde” BHIko sarbideko zoladura | Arrunta | Negoziatua | | 1.934.300 | 1.774.220 | 98/12/2 |
| Hnos. Toledo Escudero | Azagrako BHIko erdisotoa | Arrunta | Negoziatua | | 7.487.002 | 7.008.501 | 98/12/2 |
| José Ig. Goñi Labiano | Hezkuntzako Departamentuko atseden gunea | Arrunta | Negoziatua | | 4.977.048 | 4.578.884 | 98/12/2 |

| Adjudikazio hartzailea | Adjudikatzeko sistema Kontratuaren xedea | Prezioak: Tramitea | Prozedura | Modua | Aurrekontua | Adjudikazioa eta exekuzioa | Adjudikazio-aren data |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Construcciones Martínez Sánchez | San Adriango BHIko kanpoko komunak | Arrunta | Negoziatua | | 4.982.346 | 4.964.908 | 98/12/2 |
| José Maria Lerga - Persolux | Tuterako BHIko pertsianak | Arrunta | Negoziatua | | 1.418.976 | 1.409.609 | 98/12/2 |
| Perusqui Martín | Zudairiko IPko biltegia gimnasiorako egokitzea | Arrunta | Negoziatua | | 2.581.074 | 2.524.054 | 98/12/2 |
| Construcciones Aranguren | Zangozako BHIko iturgintza eta elektrizitate lanak | Arrunta | Negoziatua | | 4.742.000 | 4.666.128 | 98/12/2 |
| Const. Y Exc. Ezquerro S.L. | Mendaviako BHIko maisu-maistren etxea birmoldatzea | Arrunta | Negoziatua | | 4.420.461 | 3.987.498 | 98/12/2 |
| Schindler | Barañaingo ikasg. igogailua | Arrunta | Negoziatua | | 4.837.080 | 3.055.794 | 98/12/2 |
| Pavimentos de Navarra S.A. | Iruñeko Mariana Sanz BHI berritzea | Presakoa | Irekia | Lehiaketa | 142.590.235 | 130.327.474 | 98/12/7 |
| Chial Construc-ciones, S.L. | Cintruénigoko BHIko forjazko itxitura | Arrunta | Negoziatua | | 4.949.131 | 4.924.131 | 98/12/14 |
| Persianas Adrián Barbarin | Burlatako “Askatasuna” BHIko pertsianak | Arrunta | Negoziatua | | 3.027.689 | 2.611.781 | 98/12/14 |
| Aislatec S.L. | Vazquez de Mella IPko musika gela egokitzea | Arrunta | Negoziatua | | 1.838.739 | 1.645.671 | 98/12/14 |
| Const. Excava-ciones Erriberri | Tafallako BHIko hornidurako hodiak | Arrunta | Negoziatua | | 8.950.348 | 8.234.320 | 98/12/14 |
| Decohogar | Noaingo BHIko pertsianak | Arrunta | Negoziatua | | 2.932.786 | 2.498.640 | 98/12/14 |
| Instalaciones Fonclima, S.L. | “Askatasuna” BHIko eta pilotalekuko berokuntza sistemak bereiztea | Arrunta | Negoziatua | | 4.832.867 | 4.463.151 | 98/12/14 |
| Construcción San Donato | Altsasuko BHI berritzea | Arrunta | Negoziatua | | 3.235.926 | 3.219.000 | 98/12/18 |
| Electricidad Navesa | Iruñeko “Pablo Sarasate” kontserbatorioko instalazio elektrikoa | Arrunta | Negoziatua | | 4.852.362 | 3.833.366 | 98/12/18 |
| Instalaciones Fonclima, S.L. | San Adriango “Ega” BHIko galdara | Arrunta | Negoziatua | | 4.636.124 | 4.056.501 | 98/12/18 |
| Gabinete Trama S.L. | Los Arcosko “Los Cascajos” alderdiko jarduketa arkeologikoa | Arrunta | | | 1.000.000 | 1.000.000 | 99/2/1 |
| Técnica Sanitaria Ambiental S.L. | Nafarroako Museo Etnologikoko tratamendua | Arrunta | Negoziatua | | 950.000 | 872.000 | 99/3/24 |
| Albarrada, S.A. | Lizarrako BHIko aldagelak | Arrunta | Negoziatua | | 19.976.115 | 19.976.115 | 99/5/8 |
| Const. San Donato S.L. | Altsatsuko BHI berritzea | Arrunta | Negoziatua | | 9.038.427 | 8.948.042 | 99/6/2 |
| Jesús Garbayo Ayensa | “Benjamín de Tudela” BHI handitzea | Arrunta | Irekia | Lehiaketa | 239.400.073 | 219.649.566 | 99/6/23 |
| Construcciones Lamberto, S.A. | Iruñeko “Eunate” BHIko konponketak | Presakoa | Irekia | Lehiaketa | 55.947.589 | 53.162.519 | 99/6/23 |
| Chial Construc-ciones, S.L. | Corellako Arte Eskolako nabe berria | Arrunta | Negoziatua | | 79.999.998 | 87.347.516 | 99/7/12 |
| Féliz Echarri Esparza | Altsasuko BHIko galdara gela | Arrunta | Negoziatua | | 8.486.606 | 7.637.946 | 99/7/12 |
| Nuevo sistema modular S.L. | Lizarrako IPko moduluak muntatzea | Presakoa | Negoziatua | | 4.980.000 | 4.950.800 | 99/7/12 |

| Adjudikazio hartzailea | Kontratuaren xedea | Adjudikatzeko sistema: Tramitea | Prozedura | Modua | Prezioak: Aurrekontua | Adjudikazioa eta exekuzioa | Adjudikazio-aren data |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Nuevo sistema modular S.L. | Zizurko IPn moduluak muntatzea | Presakoa | Negoziatua | | 4.980.000 | 4.540.200 | 99/7/12 |
| Promociones y Const. De Navarra | Burlatako “Askatasuna” BHI handitzea | Arrunta | Irekia | Lehiaketa | 225.622.445 | 207.124.949 | 99/7/16 |
| Nuevo sistema modular S.L. | Mendillorriko IPn moduluak paratzea | Presakoa | Irekia | Lehiaketa | 51.932.128 | 46.887.863 | 99/7/16 |
| Agromán | Mendillorriko IP berria | Presakoa | Irekia | Lehiaketa | 499.246.984 | 464.549.319 | 99/8/2 |
| Albarrada, S.A. | Lizarrako IPko konponketak | Arrunta | Negoziatua | | 19.994.273 | 19.994.273 | 99/8/5 |
| Concoex S.L. | NUPeko pabilioiko babeserako sarea | Arrunta | Negoziatua | | 4.048.000 | 3.994.000 | 99/8/5 |
| Mondo Ibérica S.A. | NUPeko kirol pabilioiko zurezko zoladura | Arrunta | Negoziatua | | 19.985.885 | 19.975.000 | 99/8/5 |
| Construcciones Lamberto, S.A. | Iruñeko UNED handitzea | Arrunta | Irekia | Lehiaketa | 70.332.555 | 68.890.738 | 99/8/10 |
| Chial Construc-ciones, S.L. | Tuterako “Torre Monreal” IPko zenbait obra | Arrunta | Negoziatua | | 25.801.487 | 25.684.209 | 99/9/7 |
| Orona, S: Coop. Ltda. | NUPeko “El Sario” eraikineko igogailua | Arrunta | Negoziatua | | 6.386.856 | 5.753.600 | 99/9/7 |
| Jesús Garbayo Ayensa | Zizurko BHIko kirol pabilioia eraikitzea | Arrunta | Irekia | Lehiaketa | 139.977.635 | 137.598.008 | 99/9/20 |
| Construciones Luciano Elcarte | Tafallako BHIko obrak | Arrunta | Negoziatua | | 9.919.223 | 9.919.223 | 99/9/21 |
| Construcciones Luciano Elcarte | NUPeko kirol instalazioen saneamendua | Arrunta | Negoziatua | | 19.934.881 | 19.895.011 | 99/10/16 |
| Albarrada, S.A. | Uharteko BHIko lantegietako obrak | Arrunta | Negoziatua | | 7.844.676 | 7.366.151 | 99/10/29 |
| Electricidad Navesa | Iruñeko “Padre Moret” BHIko instalazio elektrikoa | Arrunta | Negoziatua | | 12.801.216 | 10.097.190 | 99/10/29 |
| Instalad. Bercazabal | Marcillako BHIko galdarak | Arrunta | Negoziatua | | 8.717.287 | 8.107.068 | 99/10/29 |
| Arbeloa Construc-ciones S.L. | Iruñeko “Navarro Villoslada” BHIko zureria | Arrunta | Negoziatua | | 12.123.021 | 11.272.845 | 99/10/29 |
| Albarrada, S.A. | Lizarrako BHIko pilotalekuko itxitura | Arrunta | Negoziatua | | 9.676.674 | 9.415.404 | 99/11/4 |
| Chial Construc-ciones, S.L. | Tuterako ETI BHIko sarbideetako zoladura, 3. fasea | Arrunta | Negoziatua | | 4.872.100 | 4.871.100 | 99/11/6 |
| Conservación y Restauración | Tuterako Katedraleko Erretaula Nagusia zaharberritzea | Arrunta | Negoziatua | | 27.400.000 | 27.400.000 | 99/11/10 |
| Montajes Eléctricos Noi, S.A.L. | NUPeko kiroldegiko instalazio elektrikoa | Arrunta | Negoziatua | | 14.492.922 | 11.565.353 | 99/11/19 |
| Construcciones Aranguren | Irunberriko BHIko leihoak | Arrunta | Negoziatua | | 8.054.005 | 7.852.654 | 99/11/30 |
| Jesús Guadalupe Garbayo Ayensa | Zizur Nagusiko ikastetxe publikoko D ereduko eraikina handitzea | Presakoa | Irekia | Lehiaketa | 146.844.951 | 139.565.059 | 00/5/10 |
| Construcciones Lamberto, S.A. | Lizarrako Remontival ikastetxe publikoa handitzea | Presakoa | Irekia | Lehiaketa | 123.871.832 | 117.951.530 | 00/6/7 |

| | | Adjudikatzeko sistema | | | Prezioak: | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Adjudikazio hartzailea | Kontratuaren xedea | Tramitea | Prozedura | Modua | Aurrekontua | Adjudikazioa eta exekuzioa | Adjudikazio-aren data |
| Construcciones Garbayo Ayensa, S.A. | Zizur Nagusiko IPko eraikina zaharberritzea | Presakoa | Negoziatua | | 7.387.889 | 7.387.889 | 00/6/9 |
| Inserkor, S.A. | Julio Caro Baroja Museoan suteak antzemateko sistema paratzea | Arrunta | Negoziatua | | 2.000.000 | 1.787.801 | 00/6/12 |
| Construcciones Does, S.I | Nafarroako Museoko aldagelak birmoldatzea | Arrunta | Negoziatua | | 4.950.000 | 4.950.000 | 00/7/4 |
| Jiménez Cortabitarte, S.A. | Tuteratik Zizur Nagusira modulu aurrefabrikatuak eraman eta muntatzea | Presakoa | Negoziatua | | 13.340.000 | 12.760.000 | 00/7/20 |
| Construcciones Lamberto, S.A. | Altsasuko Aralarko Mikel Donea BHI berritu eta handitzea | Presakoa | Irekia | Lehiaketa | 43.516.699 | 42.219.901 | 00/7/20 |
| Jesús G. Garbayo Ayensa, S.A. | Adaptación Social BHI eta José Mª Iribarren BHI handitu eta berritzea | Presakoa | Irekia | Lehiaketa | 64.796.555 | 64.796.555 | 00/7/21 |
| Montajes Eléctricos Pamplona, | Mendillorritik Burlatara modulu aurrefabrikatuak eraman eta muntatzea | Presakoa | Negoziatua | | 14.596.512 | 14.012.652 | 00/8/14 |
| Construcciones Martínez Sánchez | Tuterako ETI BHI handitu eta birmoldatzea | Presakoa | Irekia | Lehiaketa | 204.544.595 | 193.030.973 | 00/11/23 |
| Innomat, S.L. | IBenjamín de Tudela BHIn zoladura jartzea | Presakoa | Negoziatua | | 9.613.891 | 8.988.987 | 00/12/5 |
| Innomat, S.L. | Zizur Nagusiko BHIn zoladura jartzea | Presakoa | Negoziatua | | 10.487.328 | 9.858.088 | 00/12/5 |
| Jesús G. Garbayo Ayensa, S.A. | Donapea BHIn automozioko lantegirako nabea eraikitzea | Presakoa | Irekia | Lehiaketa | 83.488.530 | 78.452.042 | 00/12/15 |
| Montajes Eléctricos Pamplona, | Azagrako LHn adaptaziorako nabea egokitzea | Arrunta | Irekia | Lehiaketa | 20.710.359 | 20.710.359 | 00/12/15 |
| Jesús G. Garbayo Ayensa, S.A. | Lekarozko kiroldegiko aldagelak zaharberritzea | Arrunta | Negoziatua | | 9.729.277 | 9.729.277 | 00/12/15 |
| Construcciones Luciano Elcarte | Tafallako LHIko patioa zaharberritzea | Arrunta | Negoziatua | | 9.932.861 | 9.932.861 | 00/12/15 |
| Nuevo Sistema Modular, S.L. | Lodosako Pablo Sarasate BHIko aldagelak egitea | Arrunta | Negoziatua | | 10.528.117 | 9.481.000 | 01/3/23 |

## G/1 KONTRATU MOTA - ZERBITZU PUBLIKOEN KUDEAKETA

| Adjudikatzeko sistema | | | | | Prezioak: | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Adjudikazio hartzailea | Kontratuaren xedea | Tramitea | Prozedura | Modua | Aurrekontua | Adjudikazioa eta exekuzioa | Adjudikazio-aren data |
| Carmen Fernández | “Nafarroa” pintura sariaren XIV. deialdiaren lanak hartu, kontrolatzea... | Arrunta | Negoziatua | | 1.700.000 | 1.589.000 | 98/10/26 |

Oharra: Adjudikazio eta exekuzio prezioak bat heldu ohi dira, adjudikazio prezioaren % 10erainoko gastu gehikuntza dakarten eta behin-behineko likidazioan sarturik dauden aldaketetan salbu (Foru Komunitateko Administrazioaren kontratuak arautzen dituen azaroaren 14ko 13/1986 Foru Legearen 56.3 artikulua eta Nafarroako Administrazio Publikoen kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legearen 123.4 artikulua).

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta hurrengoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001ko maiatzaren 29an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús Mª Laguna Peña

## Erriberrin telebista kateak ongi ikusteko arazoei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Erriberrin telebista kateak ongi ikusteko arazoei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko maiatzaren 15eko 51. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Erriberrin telebista kateak (publikoak zein pribatuak) ongi ikusteko arazoei buruzko galdera egin du. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1. Zein neurri hartu ditu edo gogoan erabili ditu Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak?

Departamentuak agindua eman zuen ekipamendu espezializatua erabiliz Erriberriko zenbait tokitan telebista seinaleak neurtzeko. Horren ondorioz, herriko toki batzuetan seinalearen kalitatea eskasa dela ikusi ahal izan da.

Orobat, seinalea hartzeko antenak beste zentro igorle batzuetarantz zuzentzeko aukera aztertu da; aproposena Yergako zentroa da.

2. Harremanetan jarri al da enpresa adjudikazio-hartzailearekin arazoa nola konpondu pentsatzeko?

Erriberritik gertu dagoen aire-sorgailuen parkeak telebistako seinalea jasotzerakoan eragina izan lezakeelakoan, Departamentua harremanetan jarri da zenbait alditan, Garraio eta Telekomunikazio Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, EHN enpresarekin, eta esan beharra dago konpainia horrek jarrera ezin hobea izan duela une oro arazoa aztertzeko.

3. Teknikariek proposatutako irtenbide bat da antenak Errioxako errepikagailuen aldera zuzentzea, baina hala eginez gero Erriberriko bizilagunek ez lukete jasoko kate publikoek Nafarroaz eskaintzen duten informazio apurra ere. Horixe al da departamentuaren konponbidea?

Lehen galderaren erantzunean esan dugunez, irtenbiderik onena antenak Yergako zentro igorlerantz begira jartzea da. Zentro igorle horrek herrialdeari egokituta emititzen du TVE1eko seinalea.

Nafarroako Gobernuak, berriz, Yergako zentrotik TVE2ko seinalea ere herrialdeari egokituta lehenbailehen emititu ahal izateko azterlanak agindu ditu.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko ekainaren 1ean

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria, José Ignacio Palacios Zuasti

# Nafarroako autobideko aparkalekuetan kamioiak aparkatzeari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Félix Mª Taberna Monzón jaunak Nafarroako autobideko aparkalekuetan kamioiak aparkatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko maiatzaren 15eko 51. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Félix Mª Taberna Monzón jaunak Erriberrin telebista kateak ongi ikusteko arazoei buruzko galdera egin du. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Garraioaren arloko zenbait langilek, kamioilariek alegia, begi bistako arazoak eragiten dizkien egoera baten berri eman dute. Nafarroako autobideko aparkalekuetan kamioiak aparkatu ditzakete 6 orduz gehienez, baina legeriak 8 orduko atsedenaldiak egitera behartzen ditu. Hori dela eta, horietako askok Garraioaren Hirira joatea beste aukerarik ez dute, horrek dakarren gastuarekin. Gure ustez, aparkatzeko baimena 2 ordu gehiagotarako luzatzea oso egokia izan liteke eta ez luke arazo askorik ez eta ibilgailu pilaketarik ere sortuko.

Horrexegatik, hauxe jakin nahi dugu:

1. Audenasak epe hori luzatu dezakeen, kamioilariek nahitaez egin beharreko atsedenaldirekin bateratzeko.

2. Zein dira aparkatzeko baimena mugatzeko arrazoiak?

Autobide bateko zerbitzu guneen funtzio nagusia azpiegitura bat eskaintzea da, bertatik ibiltzen diren pertsona eta ibilgailuei hainbat zerbitzu eskaintzearren (erregaia, jatetxea, taberna, atsedena eta abar). Horrela, bada, eskaintzen dituzten zerbitzuen araberakoak izan ohi dira gune horietako aparkalekuak. Halatan, hotelik ez duten guneek –eta honek ez du– ibilgailu astunentzako eremu mugatua izaten dute, eta eremu hori denbora luzez aparkatzen delako beteta baldin badaude, ezinezkoa da beste erabiltzaile batzuek aparkalekua proiektatu zeneko erabilera emanez erabiltzea gune horiek. Horrenbestez, aparkatzeko denbora mugatuta egotea justifikatuta egon daiteke.

Bestalde, nabarmentzekoa da Garraioaren Hiria garatzea izan zen helburu bat izan zela zerbitzu berariazkoak eskaintzea garraio sektoreari; horregatik eraiki zen autobidearen alboan eta horregatik ezarri ziren sektore horrentzat berariaz proiektatu eta sortutako zerbitzuak, hala nola ibilgailu astunentzako aparkalekua (kamioientzako zola berezia, 24 orduko zainketa, kamioiek maniobrak egin eta aparkatzeko moduko plazak) eta hotela zein jatetxea, garraiolariek atseden hartu eta garbitzeko eremu berariazkoa eta guzti. Zerbitzu horien erabilera arrazionalak, jakina, kostu txiki bat dakar, garraio zerbitzu osoaren barrenean munta gutxikoa dena.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko ekainaren 1ean

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria, José Ignacio Palacios Zuasti

# Tuterako Irakasleentzako Laguntza Zentroan jardunaldi batzuk debekatzeari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Félix Mª Taberna Monzón jaunak Tuterako Irakasleentzako Laguntza Zentroan jardunaldi batzuk debekatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko maiatzaren 15eko 51. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Félix Mª Taberna Monzón jaunak Tuterako Irakasleentzako Laguntza Zentroan jardunaldi batzuk debekatzeari buruzko galdera egin du. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

Iragan martxoaren 15ean, Tuterako Irakasleentzako Laguntza Zentroko zuzendariak bertan “Esperientziei buruzko jardunaldiak” egiteko baimena eskatu zuen, ondoko gaiak jorratzeko: Unibertsitate mailako ikasketen ezarpena Erriberan, 0 eta 3 urte bitarteko etapa eta Hizkuntzak eta inmigrazioa.

Irakasleentzako Laguntza Zentroen Unitate Teknikoak –zentro horietako zuzendariak haren menpe daude– ukatu egin zion Tuterako Irakasleentzako Laguntza Zentroan lehendabiziko bi gaiei buruz (ez hirugarrenari buruz) eztabaidatzeko baimena, esanez halako proposamenek ez zutela tokirik esperientziei buruzko jardunaldi batzuetan eta ez zetozela bat ILZ baten eginkizunekin, zentro horien helburua unibertsitateaz kanpoko irakasleen prestakuntza etengabea baita.

Eginkizun horiek ekainaren 17ko 245/1996 Foru Dekretuak arautu zituen. Dekretu horren aitzinsolasean esaten denez, “Irakasleentzako Laguntza Zentroek, pixkanaka, Nafarroako Hezkuntza Sistemaren ezaugarrietako baten izaera hartu dute, irakasleen garapen profesionalerako eta ikastetxeek eta irakasleek curriculuma ulertu eta zehazteko duten arduraz baliatzeko beharrezkoak diren erreferente eta gehigarri bilakatu baitira”. Eta hala da, zentro horiek prestakuntza akademiko eta kurrikularreko zentroak dira batik bat.

Unibertsitateaz kanpoko irakasleentzako prestakuntzarako erabil litezkeen gaiak hainbeste izaki, eta horietako batzuk –esaterako Tuterako ILZko zuzendariak proposatutako hirugarrena (Hizkuntzak eta inmigrazioa)– behar-beharrezkoak, ez zuen ematen egokia zenik Unibertsitate mailako ikasketen ezarpenari eta 0 eta 3 urte bitarteko etapari buruz eztabaidatzea (prestakuntzari bainoago informazioari begira); izan ere, lehenak ez du zerikusirik unibertsitateaz kanpoko etapez arduratzen diren irakasleen prestakuntzarekin eta bigarrenak, aldiz, bere langile kualifikatuak izanen ditu.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko ekainaren 1ean

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria, Jesús Mª Laguna Peña

# Iratxe kontsumitzaileen elkarteari emaniko dirulaguntzei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak Iratxe kontsumitzaileen elkarteari emaniko dirulaguntzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko maiatzaren 28ko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du Iratxe Kontsumitzaileen Elkarteari emaniko diru laguntzei buruz. Hona Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagagoitia Ripoll andrearen erantzuna:

Nafarroako kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteentzako dirulaguntzak arautzen dituen 1988ko otsailaren 5eko Foru Aginduari (20. NAO) jarraikiz, Merkataritza eta Turismo zuzendari nagusiak martxoaren 7ko 90/2001 Ebazpena eman zuen, Nafarroako “Iratxe” kontsumitzaileen elkarteari 14.170.000 pezeta esleitzeko 2001. urtean haren eginkizunak bete zitzan.

Kontuan harturik dirulaguntza hauek arautzen dituen Foru Agindua 1988ko otsailaren 5ean argitaratu zela, elkarte honi ordutik eman zaizkion diru kopuruak hauexek dira.

| URTEA | Dirulaguntzaren kopurua |
|---|---:|
| 1988 | 5.454.280 |
| 1989 | 6.500.000 |
| 1990 | 6.063.000 |
| 1991 | 9.000.000 |
| 1992 | 9.000.000 |
| 1993 | 11.993.000 |
| 1994 | 11.993.000 |
| 1995 | 13.192.000 |
| 1996 | 8.937.000 |
| 1997 | 13.192.000 |
| 1998 | 14.000.000 |
| 1999 | 14.000.000 |
| 2000 | 14.000.000 |
| 2001 | 14.170.000 |

Dirulaguntzaren justifikazioak, deialdiaren 5. puntuan deskribatzen den bezala, hiru kontzeptu nagusi ditu ardatz:

– egindako jarduerak

– afiliatuen kopurua

– aurreko urtean egindako gastuak

Elkarteak berak 2001ean dirulaguntzak jasotzeko aurkeztu zuen dokumentazioan ageri denaren arabera, hona justifikazioa:

2001erako aurreikusiriko jarduerak

• Elkarteko kideei arreta emateko zerbitzua haren zentroetan:

- Iruña

- Lizarra

- Tutera

• Elkarteak ondoko udalekin kontratatu dituen kontsumitzaile eta erabiltzaileentzako informaziorako udal bulegoetan arreta emateko zerbitzua:

| | | |
|---|---|---|
| - Altsasu | -Cabanillas | -Orkoien |
| - Andosilla | -Cadreita | -Azkoien |
| - Arguedas | -Cintruénigo | -Ribaforada |
| - Azagra | -Corella | -San Adrián |
| - Baztan | -Irurtzun | -Valtierra |
| - Berriobeiti | -Leitza | -Eguesibar |
| - Berriozar | -Milagro | -Villafranca |
| - Burlata | -Murchante | |

• 2000. urtean egindako informazio jarduerak

– Kontsultak eta erreklamazioak: 37.898

Iruña: 23.312

Lizarra: 1.756

Tutera: 2.021

Udal bulegoak: 10.809

- Argitalpenak:

Hiruhileko buletin bat

2 aldizkari

Gai bereziei buruzko esku orriak

- Irrati eta telebistako saioak: 697 saio eta hainbat parte hartze.

- Erakunde publikoetako presentzia: herritarrentzako zerbitzuen 18 kontseilu publikotan parte hartzen du (osasuna, prezioak, mankomunitateak, ekonomikoak, eta abar).

Bazkideak

Elkarteak aurkeztutako dokumentazioan ageri denaren arabera 2000. urtearen akaberan Iratxe Kontsumitzaileen Elkarteak 31.320 kide ditu.

2001erako aurrekontuak.374.179 pezeta.

Elkarteak 2000. urterako onartu eta dirulaguntzarako eskabidearekin aurkeztu zituen kontuetatik deialdian aurreikusiriko gastu kontzeptuak atera dira (inbertsioak eta finantza gastuen kontzeptuak sartu gabe).

Kontzeptuen araberako gastuak honakoak dira:

| | |
|---|---|
| Funtzionamendu gastuak: | 13.374.179 pezeta |
| Langile teknikoen gastuak: | 27.000.000 pezeta |
| Aholkularitza juridikoa: | 5.000.000 pezeta |
| Argitalpenak eta prestakuntza: | 13.500.000 pezeta. |
| Gastuak, guztira: | 58. 874.179 pezeta. |

Bazkideen zuzeneko eta zeharkako kuotetako diru sarrerak: 33.000.000 pezeta

Iruñean, 2001eko ekainaren 1ean

Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagagoitia Ripoll

---

# Kable bidezko telekomunikazioen zerbitzua emateko Retenak eskainitako baldintzen garapenari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Félix Mª Taberna Monzón jaunak kable bidezko telekomunikazioen zerbitzua emateko Retenak eskainitako baldintzen garapenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko maiatzaren 22ko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Félix Mª Taberna Monzón jaunak galdera egin du kable bidezko telekomunikazioen zerbitzua emateko Retenak eskainitako baldintzen garapenari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

– Retenak zer baldintza-sorta agertu zituen, esleipena egin ziotenean, ikerketa eta garapen, industri jarduera, estaldura geografiko eta industriek osaturiko egiturari dagokienez?

– Tenariak esleipenean eskainitako helburuak betetzeari –batez ere estaldura geografikoari eta industriek osaturiko egiturari dagozkionak– buruzko zer iritzi dauka Nafarroako Gobernuak?

– Zergatik berandutu da helburuen abiarazpena? Garapen planak betearazteko ekintzaren bat egiteko asmotan al dabil Nafarroako Gober-nua?

Galderan planteaturiko gaiei dagokienez, aipatu behar da Foru Komunitatean telekomunikazio zerbitzuen kontzesioak banatu zituen administrazioa Estatukoa izan zela, Sustapen Ministerioaren bitartez; egun, ordea, Zientzia eta Teknologiako Ministerioaren eskumena da. Hori dela eta, ministerio hori da zerbitzuaren kontzesioan hartutako konpromisoen betetzea kontrolatu behar duena.

Horrenbestez, Zientzia eta Teknologia Ministerioari zuzendu behar zaio galdera hau.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko ekainaren 8an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

# Tatuajeak egiten diren lekuek izaten dituzten kontrolei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak tatuajeak egiten diren lekuek izaten dituzten kontrolei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko maiatzaren 28ko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du tatuajeak egiten diren lekuek izaten dituzten kontrolei buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Larruazalean pigmentuen mikroezarpenak edo metalezko arrakadak eta apaingarriak belarrietan edo gorputzeko beste ataletan jartzeko larruazaleko zuloak egiten dituzten establezimenduei dagokienez, esan behar da jarduera horiek, oro har, aurpegi- eta gorputz-estetikako zentroetan edo berariaz tatuajeak jartzen edo “piercingean” aritzen diren establezimenduetan; halere, ezin da esan kasu bakarrean ere osasun-zentro edo -establezimendu direnik, haien helburua ez baita ez prebentiboa, ez terapeutikoa, ez diagnostikoa, ez birgaitzekoa ere.

Hori guztia dela eta, establezimendu horiek ez daude sarturik 214/1997 Foru Dekretuko 2. artikuluan eta, beraz, ez dute Osasun Departamentuaren aldez aurretiko baimen administratiboa behar.

Osasunari buruzko 10/1990 Foru Legeak udalek bete beharreko osasun eskumenen artean ileapaindegien, saunen eta higiene pertsonaleko zentroen osasun kontrola dago, baita ere, oro har, eraikinen eta gizakiak elkarrekin bizi diren eraikinetakoa ere. Estetikaren arloko jardueren artean, tatuajeak egiteko edo/eta “piercingeko” establezimenduak daudela ulertu behar da.

Beste jarduera batzuetarako bezala, halako establezimenduek funtzionatzeko baldintza administratiboa irekitzeko udal lizentzia da. Hala eta guztiz ere, osasunez besteko zentro edo establezimenduak direnez, ez dute Osasun Departamentuaren funtzionamendurako baimen administratiboa zertan eduki.

Tatuajeak egiteko erabiltzen diren produktuak, zabalkundez, osasun produktuak arautzen dituen 414/1996 Errege Dekretuko bosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoak dira. Aipatu xedapen gehigarrian ezarrita dago produktu horiek aplikatzekoak zaizkion funtsezko baldintzak bete beharko dituztela, eta haiek fabrikatu, banatu eta saltzea osasun agintari eskudunen zaintzapean geratuko dela. Betiere, aipatu Errege Dekretuko 5.1, 16, 17 eta 18. artikuluetan adierazitako prozedurak bete beharko dituzte.

Errege Dekretua betez, nazio mailan tatuajeak egiteko produktuak fabrikatu edo halakoak atzerritik inportatzeko instalazioaren funtzionamendurako Farmazi eta Osasun Produktuen Zuzendaritza Nagusiak emaniko osasun lizentzia behar da. Bestalde, halako produktuak banatu eta saltzea kasuan kasuko autonomia erkidegoaren osasun agintarien zaintza eta ikuskaritza pean egonen da.

Nafarroan, 214/1997 Foru Dekretuari jarraituz, osasun produktuak banatzeko establezimenduak eta, beraz, tatuajeak egiteko produktuak banatzen dituztenak sortu, aldatu, lekuz aldatu eta funtzionamenduan jartzeko Osasun Departamentuak emaniko baimen administratiboa behar da.

Gaur egun arte, ez da ofizialki baimen administratiboko eskaririk aurkeztu tatuatzeko produktuak banatzeko inongo establezimendurik sortu edo funtzionamenduan jartzeko.

Osasunez besteko jardueretan aritzen diren osasunez besteko establezimenduak izateak ez du esan nahi jarduera horiek osasunerako arriskugarriak ez direnik; izan ere, tatuatzeko eta larruazala zulatzeko teknika erasokor eta inbaditzaileak erabili behar dira, eta teknika horiek higiene baldintza zehatzak behar dituzte, balizko konplikazioak eta bereziki gaixotasun infekziosoak transmititzeko arriskua –hepatitisa edo HIESa kasu– saihesteko. Hona establezimendu horiek bete beharreko baldintzetako batzuk:

• Instalazio egokiak eduki, tatuajeak eta larruazaleko zuloak egiteko atal berezi batekin, langile teknikoek soilik erabiltzekoa. Atal horrek ur korronteko konketa bat eta behar diren higieneko elementu guztiak eduki beharko ditu.

• Ekipoak, lan egiteko azalera, hormak eta zoruak, eta oro har instalazio guztiak, garbitasun eta desinfekziozko baldintza onetan eduki beharko dira.

• Higiene pertsonaleko behar diren baldintzak hartzea (latexezko eskularruak, batak eta abar).

• Produktuak (pigmentuak) lege indardunek ezarritakoa betez erabiltzea, eta haiek baldintza egokietan kontserbatzea.

• Ilea kentzeko hortzak, xiringak, orratz hipodermikok, belarriak zulatzeko orratzak edo antzeko beste batzuk, edozein dela ere haien helburua, erabili eta botatzekoak izanen dira.

• Hondar ebakitzaile eta puntadunak berariazko edukinontzi zurrun eta zulaezinetara botako dira. Gero, haiek tratatu eta deuseztatzeko, erakunde eskudunak baimendutako enpresa bat kontratatu beharko du.

• Larruazala nahiz mukosak zulatzekoa izan eta erabili eta botatzekoa ez den tresneria bezero bakoitzarekin erabili aitzin garbitu, eskuilatu eta gero esterilizatu beharko da, presiopeko bero hezea (autoklabea) erabiliz.

• Bezeroen erregistro eguneratu bat edukitzea, teknika horiek aplikatzeko bezeroaren aldez aurreko baimena ere jasoko duena.

• Idatzizko protokoloak eduki garbitasun, desinfekzio eta esterilizazio prozedurei buruz.

• Idatzizko protokoloak egonen dira larruazala prestatzeko eta geroko zainketak aplikatzeko prozedurei buruz.

Departamentuak arlo honetan egindakoari dagokionez –Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak 1999ko azaroaren 10eko eginiko eskari bati erantzunez azaldu nuen bezala–, praktika hauek osasunerako arriskugarriak direla eta azken urte hauetan asko ugaldu direla kontuan harturik, Departamentuak lehentasunezko gai bezala hartu zuen halako establezimenduak arautzeko berariazko arautegi bat prestatzea, bidea emanez jarduera hauen (tatuajea eta “piercinga”) funtzionamenduaren gaineko behar diren kontrola eta egiaztatze lanei estaldura juridikoa emateko. Horretarako, lankidetzan aritu gara kasuan kasuko udalekin arauak aplikatzeko, eta aipatu jardueretan aritzen diren establezimenduak identifikatzeko erregistro bat sortu da.

2000. urtetik hasi eta 2001ean zehar, Iruñeko Udala Departamentuarekin aritu da sistematikoki lanean, eta tatuajeak edo/eta “piercinga” egiteko establezimenduak jarri nahi dituztenek aurkezturiko proiektuak igortzen dizkigu; establezimendu horiek hirugarren puntuan ezarritako baldintzak bete behar dituzte.

Gai horrek Osasun Departamentuari sortu dion eta oraindik ere sortzen dion kezkarekin bat, Osasun Zentro eta Jarduerak Ikuskatzeko Ataleko Osasun Laguntzaren Bulegoaren 2001erako helburuen artean, tatuajeak eta “piercinga” egiteko baldintza tekniko eta osasunezkoei buruzko arauak aztertu, prestatu eta proposatzea; arauteria hori egiteko lehen fasean gaude, eta espero dugu 2001ean zehar bukatzea. Arauteria horren barnean, aurreikusita dago tatuajeak eta “piercinga” egiten dituzten establezimenduen erregistro bat egotea Departamentuan, jendeak kontsultatzeko moduan.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko ekainaren 1ean.

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

# Laguntza bidezko ugalketa teknikak erabiltzeko dagoen eskaera ikusita, Osasun Departamentuak eginikoei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak laguntza bidezko ugalketa teknikak erabiltzeko dagoen eskaera ikusita, Osasun Departamentuak eginikoei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko maiatzaren 28ko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du laguntza bidezko ugalketa teknikak erabiltzeko dagoen eskaerari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

147 bikote dago laguntza bidezko ugalketa teknikak erabiltzeko zain, eta atzerapena urtebete eta bi hilabetekoa da. Atzerapen handi samarra dela eman lezake, baina adituek diotenez, itxaronaldi tekniko hori egokia eta arrazoizkoa da.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko ekainaren 1ean

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

# Ospitaletako unitate geriatrikoei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak ospitaletako unitate geriatrikoei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko maiatzaren 28ko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**ERANTZUNA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du ospitaletako unitate geriatrikoei buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

2000. urtean Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak 65 urtez gorako pertsonei emaniko alten kopurua 19.513koa izan da, hau da, erregistratutako alten ehuneko 36.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak 8 oheko unitate geriatriko berariazkoa du Nafarroako Ospitalean.

Gainontzeko ospitaletan gaixo geriatrikoarenganako arreta barne medikuntzako zerbitzuek egiten dute batik bat, eta beharrezkoa baldin bada, gainontzeko espezialitate mediko eta kirurgikoen laguntza izaten dute.

Gizarte eta Osasun Laguntzako Foru Planak ekintza bereziak jasotzen ditu, gaixotasuna eta mendekotasuna batera ematen denetan modu egokian koordinatzeko gaixo bakoitzarentzako prestatutako planak eta gizarte eta osasun zerbitzuak, alferrikako ospitaleratzeak ekiditearren, laguntza anbulatorio eta etxez etxekoari lehentasuna emanez.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluak eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko ekainaren 1ean

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

HARPIDETZAREN PREZIOA

ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA

| | | |
|---|---|---|
| Urte bat | 6.300 | pta. |
| Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa | 150 | » . |
| Bilkura Egunkariaren aleko prezioa | 185 | » . |

IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

NAFARROAKO PARLAMENTUA

«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»

Arrieta 12, 3

31002 IRUÑA

Inprimatzailea: ONA Industria Gráfica (Iruña).

Lege Gordailua: NA – 363-1995

Paper ekologiko birziklatua